


Euskararen aurrekontu eta baliabide publikoen estatistika



**2022ko aurrekontuen
EAEko datuak**

2024ko uztaila



Siadeco^x
ikerketa aplikatua

Berio pasealekua 11, 20018 Donostia
943 31 00 34
siadeco@siadeco.eus



Aurkibidea

Aurkezpena	4.
1. Metodologia	5.
1.1. Ikerlanaren unibertsoa eta fitxa teknikoa	6.
1.2. Jasotako informazioa	8.
2. Aurrekontu likidatuak	9.
2.1. Erakunde-mailaren arabera	10.
2.2. Aurrekontu likidatuaren guztirakoa	28.
2.3. Euskara aurrekontu likidatuaren kapitulu ekonomikoen arabera banaketa	33.
2.3. Euskara aurrekontu likidatu altuena duten erakundeak	36.
3. EAEko euskara aurrekontu kontsolidatua	38.
3.1. Herri-administrazioen arteko euskara arloko transferentziak	39.
3.2. Udalen, hiriburuen eta aldundien finantzaketa-iturriak	41.
3.3. 2022ko euskara aurrekontu kontsolidatua	43.
3.4. Euskara aurrekontu kontsolidatuaren bilakaera, 2010-2022	44.
4. Jarduera-eremuen arabera aurrekontuak	49.
4.1. Eremuen definizioa	50.
4.2. Udalak	53.
4.3. Hiriburuak	61.
4.4. Foru aldundiak	68.
4.5. Eusko Jaurlaritza	74.
4.6. Jarduera-eremuen arabera aurrekontuaren datu orokorrak	81.

5. Euskara sustatzeko dirulaguntzak	95.
5.1. Udalak.....	96.
5.2. Hiriburuak	108.
5.3. Foru aldundiak	115.
5.4. Eusko Jaurlaritza	122.
5.5. Euskara sustatzeko dirulaguntzen datu orokorrak	130.
5.6. Dirulaguntzen inguruko informazio gehigarria	135.
6. Euskara zerbitzuetako giza-baliabideak	137.
7. Ondorioak eta emaitza nagusiak	146.
7.1. Ikerlanaren ezaugarriak	147.
7.2. Euskara aurrekontuen kopuru orokorrak eta bilakaera	148.
7.3. Jarduera-eremuen arabera aurrekontuak eta bilakaera	152.
7.4. Herri-administrazioen euskararako dirulaguntzak	156.
7.5. Giza-baliabideak	159.
8. Eranskinak	160.
8.1. EAEko 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalen aurrekontu propio likidatuaren eta euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera (2002-2022)	161.
8.2. EAEko Foru Aldundien aurrekontu propio likidatuaren eta euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera (2002-2022)	175.
8.3. Udaletako euskara aurrekontua kapitulu ekonomikoen arabera eta euskara aurrekontua biztanleko (2022).....	176.
8.4. Udaletako euskara aurrekontuak jarduera-eremuen arabera (2022)	178.
8.5. Udaletako euskara dirulaguntzak eremuen arabera (2022)	180.
8.6. Euskara atalaren giza baliabideak, lanpostu mota eta sexuaren arabera (2022)..	182.

Aurkezpena

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoetako euskara aurrekontuen azterketa egin du Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Bi urtean behin egiten da azterlan hori, eta EAEko administrazio publikoek 2022an likidatutako aurrekontuetako datuen estatistika jaso da dokumentu honetan.

Bi helburu nagusi dauzka ikerketa honek: batetik, jakitea zein den EAEko erakunde publikoek euskararen sustapenean egiten duten ahaleginaren neurri ekonomikoa; bestetik, aztertzea azken urteetan nolako bilakaera izan duen esfortzu ekonomiko horrek.

Hasteko, euskara aurrekontu likidatuak eta kontsolidatuak aztertzen ditu txosten honek, erakunde-mailaren arabera eta guztirakoa. Aurrekontu horien jarduera-eremuen arabera banaketa egiten da, gero. Eta segidan, berariaz jorratzen dira aurrekontuen bi zati: dirulaguntzei dagokiena eta giza-baliabideena. Bukaeran, ondorioei lotuta, emaitza nagusien laburpenak borobiltzen du txostena.

Siadeco Ikerketa Elkartea arduratu da erakundeetako aurrekontuen informazioa bildu, datuak aztertu eta txosten honetan jasotzeaz.

1

METODOLOGIA



1.1. Ikerlanaren unibertsoa eta fitxa teknikoa

EAEko 5.000 biztanlez gaindiko udaletako, hiriburuetak, foru aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako sailetak eta erakunde autonomiaduneko datuekin osatu da azterketa hau. Horien guztien datuak jasotzeko, landa-lana burutu du Siadeco Ikerketa Elkarteak, 2023ko abenduaren eta 2024ko apirilaren artean. Jarraian azaltzen dira landa-lanari buruzko zehaztapenak.

Ikerlanaren unibertsoa: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak, hiru herrialdeetako foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritza (haren sailak eta menpeko erakunde autonomiadunak barne). Guztira, 97 informazio-unitate: 5.000 biztanlez gorako udalerrietako 70 udal (hiriburuak kanpo), EAEko hiru hiriburuak, hiru foru aldundiak, eta Eusko Jaurlaritzaren 21 sail eta erakunde autonomiadun. 2020ko estatistikarekin alderatuta, informazio-unitate bat gehiago dago: Urdulizko Udala.

1. taula. Aztertutako erakundeen unibertsoa eta informazio-unitateen kopuruak

		Unibertsoa	
		Erakunde / Informazio-unitate kop.	%
5.000 biztanlez gorako EAEko udalerrietako udalak	Arabakoak	3	3,1
	Bizkaikoak	34	35,1
	Gipuzkoak	33	34,0
Hiriburuetak udalak		3	3,1
Foru aldundiak		3	3,1
Eusko Jaurlaritzaren sailak eta erakunde autonomiadunak		21	21,6
Guztira		97	100,0

Iturria: Siadeco, 2023

Aztergai izan diren udalen irismen-maila. Hiru hiriburuetan eta azterlanean parte hartu duten 5.000 biztanlez gorako gainerako 70 udalerrietan 1.967.581 biztanle bizi dira: EAEko biztanleriaren % 90,0 da. Araban, Gasteiz eta beste hiru udalerri besterik ez dute 5.000 biztanle baino gehiago (Agurain, Amurrio eta Audio), baina lurralde osoko biztanleen % 85,2 ordezkatzen dute. Bizkaian 35 udalerririk 5.000 biztanlez gorakoak (hiriburua barne), eta Gipuzkoan, aldiz, bat gutxiago, 34; bi kasutan biztanleen % 90 baino gehiago ordezkatzen dute.

2. taula. Aztertutako udalerrien kopurua eta EAEko biztanleriarekiko irismen-maila

	Unibertsoa (> 5.000 biztanleko udalerririk)		EAEko udalerririk		Irismen-maila (Unibertsoa/EAEko udalerririk)	
	Udalerririk kop.	Biztanleria	Udalerririk kop.	Biztanleria	Udalerririk kop.	Biztanleria
Arabako udalerririk (Gasteiz barne)	4	281.740	51	330.692	7,8	85,2
Bizkaiko udalerririk (Bilbo barne)	35	1.030.426	112	1.139.209	31,3	90,5
Gipuzkoako udalerririk (Donostia barne)	34	655.415	88	716.616	38,6	91,5
Guztira	73	1.967.581	251	2.186.517	29,1	90,0

Iturria: Eustat, 2022; Siadecok landua

Fitxa teknikoa:

Ikerketarako datuak bildu dira 5.000 biztanle baino gehiagoko udal guztietan, hiru foru aldundietan eta Eusko Jaurlaritzako sail guztietan.

Hona estatistikaren fitxa teknikoa eta prozedura metodologikoari buruzko argibideak:

Estatistikaren erreferentzia urtea. Herri-administrazioen 2022ko aurrekontu likidatuak hartu dira kontuan, hau da, onartutako obligazioen fasean kontabilizatutako kopuruak.

Datu-bilketa egindako unea. 2023ko abendutik 2024ko apirilera.

Landa-lana egin duen entitatea. Siadeco Ikerketa Elkartea.

Landa-lanerako prozedura. Herri-erakundeen datuak galdetegi egituratu batean jaso dira, erakundeetatik zuzenean helarazitako datuak eta zeharkako informazioa erabiliz. Kasu guztietan, informazioa kontrastatu egin da erakundeetako kontu-hartzaileekin eta euskara ataletako teknikariek.

1.2. Jasotako informazioa

Herri-administrazioen euskara aurrekontu likidatuak. Atal honetan jaso da zenbatekoa den EAEko administrazio publikoko erakunde guztien euskara aurrekontu likidatua, eta zer bilakaera izan duen 2010etik 2022ra. 5 mila biztanlez gorako udalerrietako udaletatik hasi eta Eusko Jaurlaritzaren sail eta erakunde autonomiadunetarako, zein den erakundeen euskara aurrekontu likidatua, eta zein bilakaera izan duen azken 12 urteetan. Erakunde-motaren arabera datuen ondoren, guztirakoak aztertzen dira, eta euskara aurrekontuek administrazioen guztirako aurrekontuen parean izandako bilakaera. Atal bat ere eskaintzen zaio euskara gastuen izaera ekonomikoari.

Herri-administrazioen euskara aurrekontu kontsolidatuak. Atal honetan, administrazio publikoko erakundeen euskara aurrekontu bateratua edo kontsolidatua aztertzen da. Aurrekontu kontsolidatuak adierazten du zein den zehazki EAEko herri administrazio guztien artean euskararen normalizazioa bideratutako aurrekontua, erakundeen arteko transferentziek eragindako errepikapen edo bikoizketak kendu ondoren. Hau da, aurrekontu kontsolidatua kalkulatzeko, behin soilik kontabilizatu dira erakundeen aurrekontu likidatueta errepikatuak dauden zenbatekoak —horretarako, udalen, foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean guztira kudeatutako euskara aurrekontu likidatuari kendu egin zaio Jaurlaritzak diputazioei eta haiek udalei egindako transferentzien zenbatekoa—. Beraz, euskara aurrekontu kontsolidatua, likidatua baino zertxobait baxuagoa da.

Jarduera-eremuen arabera euskara aurrekontu likidatuak. Atal honetan aztertzen da zertan erabiltzen duten euskara aurrekontua erakundeek. Euskarara bideratutako diru baliabideak hamazazpi eremutan bereizi dira, eta azterketa horren bitartez jakin daiteke erakunde-mota bakoitzean zein eremutara bideratu duten dirua. Aurrekontu likidatuak hartu dira analisirako oinarritzat, horiek baitira erakundeek benetan kudeatutakoak.

Euskara sustatzeko dirulaguntzak. Jaso da euskararen eremuko dirulaguntzetara zenbat bideratu den erakunde-motaren arabera eta guztira, eta dirulaguntza horiek zer bilakaera izan duten azken urteetan.

Euskara arloetako giza baliabideak. Atal honetan, EAEko erakundeetan hizkuntza normalizazioari eta sustapenari lotutako giza baliabideen eta enpleguaren datuak aztertzen dira.

Ondorioak. Azken atalean, txostenean zehar azaldutako datu azpimarragarrienak azaldu eta laburtzen dira.

2

AURREKONTU LIKIDATUAK



2.1. Erakunde-mailaren arabera

2.1.1. Udalak


5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietako udalen euskara aurrekontu likidatuetan igoera izan da 2022an: 2020ko aurrekontuarekiko % 14,6 igo da, eta beraz, azken hamarkadako aurrekonturik altuena du euskarak, 41 milioi euro. Udalen aurrekontu orokorra, euskarakoa baino puntu bat gehiago igo da; eta ondorioz, euskara aurrekontuek aurrekontu osoan duten pisua zertxobait jaitsi egin da 2020tik, % 2,39tik % 2,37ra.

Lurralde historikoen arabera, hiru lurraldetako udaletan –hiriburuak hurrengo atalean aztertu dira– izan da igoera, baina ez neurri berean:

- Arabako udaletako igoera da esanguratsuena: batez beste % 21,0 igo da euskarara bideratutako aurrekontua, aurrekontu osoa baino gehiago (% 1 besterik ez da igo). Beraz, aurrekontu osotik euskarara bideratutako aurrekontuaren ehunekoa lau hamarren handiagoa da Arabako udaletan (% 1,88tik % 2,25era pasa da). Gainera, azken 12 urtetan lehen aldiz, euskara aurrekontuak milioi bateko langa gainditu du.
- Bizkaiko eta Gipuzkoako udaletako aurrekontuek neurri bertsuan egin dute gora (% 14,8 eta % 14,0, hurrenez hurren), baina Arabakoa baino gutxiago. Bizkaian, aurrekontu osoa baino ia lau puntu gutxiago igo da euskararena eta Gipuzkoan, aldiz, puntu bat baino gehiago egin du gora. Edonola ere, euskara aurrekontuaren ehunekoa mantendu edo zertxobait igo da Gipuzkoan, eta zertxobait jaitsi, Bizkaian: Gipuzkoan, 2020an % 2,82 izatetik % 2,85 izatera; eta Bizkaian 2020 % 2,09tik % 2,02ra.


COVID-19aren pandemia aurreko urteko datuekin alderatuta, euskara aurrekontuak osoan duen pisua 2018koa baino txikiagoa da: % 2,37koa izan da 2022an; % 2,39koa, 2020an; eta 2,63koa, aldiz, 2018an. 2018tik 2020ra, udalen aurrekontu orokorrak igo egin ziren eta euskararenak jaitsi, eta 2020tik 2022ra, euskara aurrekontuak (% 14,6) baino, zertxobait gehiago igo dira udalen aurrekontu orokorrak (% 15,7).

1. grafikoa. Udalen euskara aurrekontuak 2010-2022 (mila €, hiriburuak sartu gabe)



Iturria: Siadeco.

2. grafikoa. Udalen aurrekontu orokorren, euskara aurrekontuen eta euskara aurrekontuaren pisuaren 2010-2022 bilakaera (%) (hiriburuak sartu gabe)



Iturria: Siadeco.

3. taula. Hiriburuak ez diren 5 mila biztanlez gorako udalerrietako udalen aurrekontu likidatuak (2010-2022)

Erakundea	Urtea	EUSKARA aurrekontua		Aurrekontu OSOA		Euskara aurrekontuaren EHUNEKOA
		€	Bilakaera (%)	€	Bilakaera (%)	
ARABAKO udalak	2010	723.318		46.680.959		1,55
	2012	708.885	-2,00	33.258.893	-28,75	2,13
	2014	664.789	-6,22	40.864.357	22,87	1,63
	2016	966.041	45,32	41.497.799	1,55	2,33
	2018	995.784	3,08	41.686.859	0,46	2,39
	2020	871.562	-12,47	46.364.247	11,22	1,88
	2022	1.054.438	20,98	46.817.616	0,98	2,25
BIZKAIKO udalak	2010	14.291.833		957.941.649		1,49
	2012	15.147.024	5,98	795.396.018	-16,97	1,90
	2014	15.512.272	2,41	757.504.919	-4,76	2,05
	2016	17.619.701	13,59	764.393.175	0,91	2,31
	2018	18.280.965	3,75	803.712.670	5,14	2,27
	2020	16.898.417	-7,56	808.530.689	0,60	2,09
	2022	19.404.607	14,83	960.271.957	18,77	2,02
GIPUZKOAKO udalak	2010	16.709.939		664.426.526		2,51
	2012	15.608.400	-6,59	556.393.787	-16,26	2,81
	2014	16.486.028	5,62	577.339.144	3,76	2,86
	2016	18.595.445	12,80	579.592.159	0,39	3,21
	2018	18.936.186	1,83	608.778.277	5,04	3,11
	2020	18.019.248	-4,84	639.974.910	5,12	2,82
	2022	20.549.728	14,04	721.983.970	12,81	2,85
Udalak GUZTIRA (> 5 mila biztanle, hiriburuak salbu)	2010	31.725.090		1.669.049.134		1,90
	2012	31.464.309	-0,82	1.385.048.698	-17,02	2,27
	2014	32.663.089	3,81	1.375.708.420	-0,67	2,37
	2016	37.181.187	13,83	1.385.483.134	0,71	2,68
	2018	38.212.935	2,77	1.454.177.806	4,96	2,63
	2020	35.789.227	-6,34	1.494.869.845	2,80	2,39
	2022	41.008.773	14,58	1.729.073.543	15,67	2,37

Iturria: Siadeco.

5 mila biztanle baino gehiagoko udalen hiru laurdenetan hazi egin da euskara aurrekontu likidatua 2010-2022 epealdian: 66 udaletik 51tan. Euskaldunak % 70 baino gehiago diren herrietan ia denek handitu dute euskara aurrekontua 2010 eta 2022 artean. Era berean, 18 mila biztanletik beherakoak dira hamabi urte hauetan euskara aurrekontua txikitu duten guztiak (hiriburuak kenduta).

4. taula. EAEko 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalen eta hiriburuen euskara aurrekontu likidatua, 2010ekoarekiko bilakaera, euskara aurrekontuaren pisua aurrekontu osoarekiko eta euskara aurrekontua biztanleko (2022)

Erakunde kodea	Erakundea	Euskara aurrekontua (2022) (€)	Euskara aurrekontuaren bilakaera 2010-2022 (%)	Euskara aurrekontuaren ehunekoa (2022) (%)	Euskara aurrekontua biztanleko (2022) (€/bizt)	Biztanleria (2022/1/1)	Euskaldunen % (2021)
1002	Amurrioko Udala	337.299	16,38	2,29	32,52	10.371	36,83
1036	Laudioko Udala	633.087	46,04	2,69	35,12	18.026	35,07
1051	Aguraingo Udala	84.052		0,98	16,05	5.237	35,97
1059	Gasteizko Udala	4.503.618	30,37	1,13	18,15	248.106	29,83
20009	Andoaingo Udala	672.868	19,62	2,75	45,66	14.737	57,03
20013	Aretxabaletako Udala	301.749	-48,24	2,81	42,59	7.085	66,30
20017	Azkoitiko Udala	235.250	75,57	1,34	19,75	11.914	76,12
20018	Azpeitiko Udala	772.560	56,07	3,27	50,51	15.294	82,95
20019	Beasaingo Udala	813.159	182,59	4,29	59,08	13.763	58,93
20029	Debako Udala	218.155	24,45	2,55	40,55	5.380	75,37
20030	Eibarko Udala	1.131.191	67,58	2,69	41,92	26.983	53,44
20032	Elgoibarko Udala	814.208	-2,54	4,84	71,46	11.394	61,74
20036	Hondarribiko Udala	517.889	-23,20	1,99	30,35	17.066	64,58
20040	Hernaniko Udala	743.110	4,47	2,36	36,22	20.516	61,82
20045	Irungo Udala	1.731.450	31,94	2,11	28,87	59.976	40,98
20049	Lazkaoko Udala	78.352	61,62	1,02	13,58	5.768	66,26
20051	Legazpiko Udala	304.006	-34,72	2,52	36,66	8.292	60,88
20053	Lezoko Udala	388.176	11,11	3,31	64,26	6.041	60,88
20055	Arrasateko Udala	1.775.056	22,75	5,46	82,14	21.610	55,43
20056	Mutriku Udala	129.650	10,05	1,92	24,30	5.336	84,51
20059	Oñatiko Udala	787.606	10,83	3,98	68,79	11.449	76,45
20061	Orioko Udala	289.464	68,75	2,71	47,68	6.071	75,06
20063	Oiartzungo Udala	494.047	25,19	2,02	47,63	10.372	76,16
20064	Pasaiaiko Udala	923.861	55,32	4,64	55,97	16.506	44,07
20067	Errenteriako Udala	947.391	4,98	1,62	23,97	39.520	43,55
20069	Donostiako Udala	3.034.270	8,49	0,99	16,69	181.769	46,67
20071	Tolosako Udala	654.926	20,17	2,14	33,23	19.706	70,25
20072	Urnietako Udala	514.978	23,84	4,20	83,59	6.161	59,43
20073	Usurbilgo Udala	279.501	20,85	2,17	45,27	6.174	72,83
20074	Bergarako Udala	698.193	0,35	2,51	47,41	14.727	67,87
20075	Villabonako Udala	194.218	-17,56	2,90	33,91	5.728	69,33
20076	Ordiziako Udala	284.139	-26,02	1,99	28,39	10.010	59,89
20077	Urretxuko Udala	303.609	47,90	2,59	44,65	6.799	61,66
20079	Zarauzko Udala	1.497.690	37,51	3,85	64,96	23.055	73,45
20080	Zumarragako Udala	299.147	-10,73	1,95	31,21	9.585	53,28
20081	Zumaiako Udala	338.764	8,34	2,34	33,86	10.006	74,02
20902	Lasarte-Oriako Udala	1.253.588	104,56	5,72	64,84	19.334	45,51
20903	Astigarragako Udala	161.772		1,79	22,20	7.288	64,97
48001	Abadiñoko Udala	222.363	-30,71	1,53	28,80	7.722	55,85
48002	Abanto Zierbenako Udala	197.550	9,12	1,27	21,17	9.331	32,34
48003	Amorebieta-Etxanoko Udala	870.383	89,50	2,83	45,28	19.222	56,64
48011	Arrigorriagako Udala	495.872	22,70	3,61	42,35	11.708	41,75
48013	Barakaldoko Udala	2.229.718	285,96	1,63	22,68	98.304	26,94
48015	Basauriko Udala	1.491.936	18,03	2,70	37,02	40.302	29,98

Erakunde kodea	Erakundea	Euskara aurrekontua (2022) (€)	Euskara aurrekontuaren bilakaera 2010-2022 (%)	Euskara aurrekontuaren ehunekoa (2022) (%)	Euskara aurrekontua biztanleko (2022) (€/bizt)	Biztanleria (2022/1/1)	Euskaldunen % (2021)
48016	Berangoko Udala	374.218	12,13	4,36	49,78	7.518	43,34
48017	Bermeoko Udala	420.442	-21,40	1,59	25,05	16.782	71,45
48020	Bilboko Udala	2.660.859	-4,29	0,43	7,82	340.455	30,64
48027	Durangoko Udala	1.024.946	39,07	2,71	34,58	29.644	52,47
48029	Etxebarriko Udala	926.798	144,33	5,95	79,43	11.668	37,91
48032	Elorrioko Udala	212.577	-45,91	2,34	28,75	7.393	61,40
48034	Ermuko Udala	308.291	6,52	1,30	19,73	15.627	33,64
48036	Galdakaoko Udala	1.296.151	44,49	3,04	44,20	29.325	44,34
48043	Gorlizko Udala	144.900	-8,03	1,81	23,88	6.068	47,10
48044	Getxoko Udala	1.701.131	16,48	1,69	22,49	75.629	33,53
48045	Gueñesko Udala	103.415	-23,70	1,24	15,56	6.645	33,92
48046	Gernika-Lumoko Udala	711.648	-16,01	3,72	42,84	16.610	68,26
48054	Leioako Udala	704.932	3,35	1,86	22,07	31.946	36,16
48057	Lekeitioko Udala	93.432	17,36	0,86	13,07	7.150	83,62
48060	Markina-Xemeingo Udala	71.477		0,81	14,23	5.024	76,69
48069	Mungiaiko Udala	509.638	0,84	1,77	29,42	17.324	56,95
48071	Muskizko Udala	312.291	2,84	2,31	43,36	7.203	33,13
48073	Ondarroako Udala	138.929	40,12	1,29	16,64	8.348	76,60
48078	Portugaleteko Udala	862.586	76,16	1,56	19,12	45.110	27,43
48080	Trapagarango Udala	571.980	165,30	3,67	48,64	11.760	32,17
48082	Santurtziko Udala	919.464	72,03	1,46	20,28	45.335	28,14
48083	Ortuellako Udala	194.542	10,04	1,73	23,18	8.391	30,98
48084	Sestaoko Udala	456.435	29,49	1,12	16,85	27.082	26,45
48085	Sopelako Udala	546.402	36,70	3,03	40,10	13.627	48,10
48089	Urdulizko Udala	94.161		1,10	18,23	5.164	49,87
48090	Balmasedako Udala	44.721	-73,46	0,53	5,82	7.684	30,62
48096	Zallako Udala	155.389	-0,46	1,39	18,85	8.245	33,31
48901	Derioko Udala	315.060	27,69	2,71	44,59	7.066	42,56
48902	Erandio Elizateko Udala	680.826	33,66	1,75	28,35	24.014	32,15
	Guztira	51.207.519	25,64	1,68	26,03	1.967.581	43,31

Iturria: Siadeco.

2.1.2. Hiriburuak


2022an hiriburuetakoko euskara aurrekontuak nabarmen igo dira (% 22,9) eta erreperatu egin dute COVID-19aren pandemiaren eraginez 2020an jaitsitakoa (-% 18,0): hiru udalen artean 10,2 milioi euro bideratu dituzte euskarara. Hori horrela, 2022an hiriburuetatik euskarara bideratutako zenbatekoa 2018koaren oso antzekoa da (% 0,7 gehiago, besterik ez).

Kasuan kasu aztertuta, bai euskara aurrekontuen zenbatekoak, baita aurrekontu osoek ere hiru hiriburuetan nabarmen egin dute gora. Gasteizko Udalaren euskara aurrekontua 4,5 milioi eurokoa izan da, eta 2020koarekin alderatuta, gehien hazi dena da: % 28,0 igo da, aurrekontu osoa baino gehiago (% 10,0). Dena den, 2018an asko jaitsi zen (-% 28,1) eta ez du erreperatu galdutako zenbateko osoa. Hortaz, 2018ko aurrekontu altuenetik ia 400 mila eurora geratu da. Bilboren eta Donostiaren kasuan, aldiz, 2020an galdutakoa baino gehiago igo dira aurrekontuak: Bilboko % 25,4 (2,7 milioi euro), eta Donostiakoa, % 14,1 (3,0 milioi euro).

Gasteizko Udalaren euskara aurrekontua da hiru hiriburuen artean pisu erlatiborik handiena duena, eta % 1aren gainera dagoen bakarra (% 1,13). Donostian, aurrekontu osoaren % 0,99 da euskarakoa; eta Bilbon, aldiz, % 0,43.

Bilakaerari dagokionez, 2022ko datuak eta 2010ekoak alderatzen badira, guztirako aurrekontu orokorra eta euskarakoa igo dira, baina jaitsi egin dira Donostiako aurrekontu orokorra eta Bilboko euskara aurrekontua. Bilakaera horretan, antzeko pisu erlatiboa du euskarakoak.

3. grafikoa. Hiriburuen euskara aurrekontuak 2010-2022 (mila €)



Iturria: Siadeco.

5. taula. Hiriburuetakoko udalen aurrekontu likidatuak (2010-2022)

Erakundea	Urtea	EUSKARA aurrekontua		Aurrekontu OSOA		Euskara aurrekontuaren EHUNEKOA
		€	Bilakaera (%)	€	Bilakaera (%)	
Gasteizko Udala	2010	3.454.521		438.193.164		0,79
	2012	3.075.233	-10,98	309.218.750	-29,43	0,99
	2014	3.971.244	29,14	346.186.397	11,96	1,15
	2016	4.534.431	14,18	346.315.112	0,04	1,31
	2018	4.893.342	7,92	347.717.879	0,41	1,41
	2020	3.518.444	-28,10	364.068.221	4,70	0,97
	2022	4.503.618	28,00	398.881.558	9,56	1,13
Bilboko Udala	2010	2.779.990		589.418.636		0,47
	2012	1.928.969	-30,61	472.200.000	-19,89	0,41
	2014	1.733.113	-10,15	526.991.890	11,60	0,33
	2016	1.748.189	0,87	461.091.119	-12,51	0,38
	2018	2.345.646	34,18	515.701.607	11,84	0,45
	2020	2.121.869	-9,54	537.695.276	4,26	0,39
	2022	2.660.859	25,40	618.818.083	15,09	0,43
Donostiako Udala	2010	2.796.828		333.721.320		0,84
	2012	2.626.189	-6,10	266.990.481	-20,00	0,98
	2014	2.934.603	11,74	282.437.152	5,79	1,04
	2016	2.887.267	-1,61	286.871.903	1,57	1,01
	2018	2.883.538	-0,13	254.657.732	-11,23	1,13
	2020	2.660.271	-7,74	279.128.620	9,61	0,95
	2022	3.034.270	14,06	305.453.485	9,43	0,99
Hiriburuak GUZTIRA	2010	9.031.339		1.361.333.120		0,66
	2012	7.630.391	-15,51	1.048.409.231	-22,99	0,73
	2014	8.638.960	13,22	1.155.615.438	10,23	0,75
	2016	9.169.887	6,15	1.094.278.134	-5,31	0,84
	2018	10.122.526	10,39	1.118.077.217	2,17	0,91
	2020	8.300.584	-18,00	1.180.892.118	5,62	0,70
2022	10.198.747	22,87	1.323.153.126	12,05	0,77	

Iturria: Siadeco.

2.1.3. Udal eta hiriburuen biztanleko ratioak

Udalek biztanleko egiten duten inbertsioa aztertzen badugu, aldeak daude euskaldunen portzentajearen eta udalerrien tamainaren arabera. Orotara, udalek eta hiriburuak batez beste 26,03 euro biztanleko jarri dituzte 2022an euskara aurrekonturako. Gehiago jarri dute 10 eta 20 mila biztanle arteko udalerriek (43,43 euro) eta 3. gune soziolinguistikokoek, hau da, euskaldunen portzentajea % 51 eta 70 artean dutenek (43,50). Azken hamar urteetako datuak aztertuz gero, hori izan da joera.

6. taula. Udal eta hiriburuetako biztanleko euskara aurrekontua, udalerrri-tamaina eta gune soziolinguistikoaren arabera (2010-2022)

Erakundea	Urtea	GUZTIRA	Biztanleria				Gune soziolinguistikoa			
			5-10 mila	10-20 mila	> 20 mila	Hiriburua	1 GS (eusk. < %30)	2 GS (eusk. %31-50)	3 GS (eusk. < %51-70)	4 GS (eusk. > %70)
ARABAKO udalak	2010	15,66		25,41		14,50	15,66			
	2012	13,97		24,78		12,70	13,97			
	2014	17,00	23,87	18,88		16,63	16,63	19,63		
	2016	19,91	13,50	31,17		18,72	20,04	13,50		
	2018	21,02	17,52	31,39		19,88	19,88	29,24		
	2020	15,59	15,27	27,79		14,20	14,20	25,85		
	2022	19,73	16,05	34,17		18,15	18,15	31,35		
	BIZKAIKO udalak	2010	16,44	29,64	30,16	16,37	7,87	12,69	31,75	38,65
2012		16,40	28,00	31,45	17,92	5,49	13,10	31,37	33,51	19,74
2014		16,79	27,10	34,01	18,48	5,03	11,93	25,67	33,90	19,98
2016		18,94	27,40	34,76	22,95	5,11	15,50	36,35	34,57	18,48
2018		20,11	28,75	37,41	23,21	6,83	14,12	29,55	38,07	20,19
2020		18,46	20,21	35,34	22,36	6,19	13,11	25,74	32,34	19,96
2022		21,41	24,55	39,91	25,45	7,82	23,27	18,51	36,27	19,42
GIPUZKOAKO udalak		2010	30,36	42,48	38,14	31,54	15,08		19,90	42,71
	2012	28,21	38,86	37,31	27,52	14,09		17,93	38,79	39,40
	2014	29,98	38,69	37,17	31,07	16,27		19,64	39,61	42,09
	2016	32,99	42,42	40,45	36,70	15,99		22,16	44,22	42,81
	2018	33,30	41,56	41,39	37,83	15,87		21,85	44,27	43,65
	2020	31,46	37,46	40,97	35,18	14,61		20,69	41,58	41,52
	2022	35,98	40,40	47,18	40,83	16,69		24,88	46,81	45,67
	Udalak GUZTIRA	2010	20,93	35,76	34,21	20,51	11,62	13,41	22,66	41,77
2012		19,96	33,14	34,16	20,54	9,78	13,31	21,08	37,56	34,30
2014		21,20	32,81	34,50	21,93	11,31	13,13	22,04	38,31	36,48
2016		23,77	34,58	37,58	26,76	11,98	16,63	25,41	42,02	36,73
2018		24,65	34,91	38,96	27,59	13,13	15,68	25,35	42,32	38,76
2020		22,39	28,14	37,73	26,21	10,74	13,41	23,15	38,67	36,53
2022		26,03	31,13	43,43	30,07	13,24	20,75	20,99	43,50	39,63

Iturria: Siadeco.

2.1.4. Foru aldundiak

2020tik 2022ra % 5,4 igo da hiru foru aldundiek euskarara bideratzen duten aurrekontua; denera, 19,8 milioi euroko aurrekontua izan dute: 9,6 milioi eurokoa Bizkaiko Foru Aldundiak, 7,5 milioi eurokoa Gipuzkoakoak; eta 2,6 milioi eurokoa, aldiz, Arabakoak. Kopuru horien barnean dago hedabideen finantzaketarako Eusko Jaurlaritzak foru aldundiei egiten dien 1,6 milioi euroko transferentzia.


Gipuzkoa da proportzioan aurrekonturik handiena daukana: hark jarri du biztanleko diru gehien (10,57 euro); ondoren, Bizkaia (8,41 euro); eta Arabak, gero (7,95 euro).

Kopuruez harago, hiru lurraldeen joeran, aldiz, aldeak daude, bai 2020koarekiko eta bai aurrekontu orokorrarekiko izandako bilakaeran ere.

- 2020ko aldean, Arabako aurrekontua igo egin da COVID-19ak eraginda jaitsitakoa (% 13,8) baino gehiago (% 24,4), eta aurrekontu orokorraren gainetik (% 10,7). 2022an euskarako aurrekontuaren pisua igo egin da, % 0,41etik % 0,46ra. Ildo beretik, biztanleko diru-kopurua ere igo egin da: 2020an 6,40 euro jartzen zituen biztanleko, eta 2022an, 7,95 euro jarri ditu.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren euskara aurrekontuak 2016an hasitako goranzko joerari eutsi dio, eta % 6,8 hazi da 2020tik 2022ra. Erakundearekiko aurrekontu osoaren pisua jaitsi egin da (% 0,56tik % 0,45era), aurrekontu orokorra nabarmen igo delako (% 34,2). Bizkaiko Foru Aldundiak biztanleko egiten duen ekarpenak ere gora egin du 0,56 euro, 8,41 euro biztanleko 2022an.
- Gipuzkoakoa, aldiz, zertxobait jaitsi da (-% 1,4), baina aurrekontu osoarekiko pisurik handiena izaten jarraitzen du (% 0,76) eta biztanleko ratorik altuena du 2022an ere, 10,57 euro.

Azken hamabi urteetako bilakaerari erreparatuz gero, 2010eko eta 2022ko aurrekontuak alderatzen badira, aurrekontu orokorra (% 19,0) eta euskara aurrekontua (% 9,2), biak, igo egin dira, baina ez maila berean. Euskara aurrekontuaren igoeran Gipuzkoako Foru Aldundiak du zerikusi gehien; aldiz, aurrekontu orokorra gehiago igo da Bizkaioan.

4. grafikoa. Aldundien euskara aurrekontuak 2010-2022 (mila €)



Iturria : Siadeco.

7. taula. Foru aldundien aurrekontu likidatuak (2010-2022)

Erakundea	Urtea	EUSKARA aurrekontua		Aurrekontu OSOA		Euskara aurrekontuaren EHUNEKOA	Euskara aurrekontua BIZTANLEKO
		€	Bilakaera (%)	€	Bilakaera (%)		
Arabako Foru Aldundia	2010	2.333.221		446.461.983		0,52	7,40
	2012	1.670.917	-28,39	394.996.501	-11,53	0,42	5,20
	2014	1.910.409	14,33	403.288.655	2,10	0,47	6,00
	2016	2.290.182	19,88	418.851.941	3,86	0,55	7,10
	2018	2.452.721	7,10	481.565.396	14,97	0,51	7,48
	2020	2.113.870	-13,82	518.310.000	7,63	0,41	6,40
	2022	2.629.867	24,41	574.000.000	10,74	0,46	7,95
Bizkaiko Foru Aldundia	2010	9.641.826		1.764.609.826		0,55	8,40
	2012	10.408.787	7,95	1.602.611.726	-9,18	0,65	9,00
	2014	8.259.514	-20,65	1.454.386.247	-9,25	0,57	7,20
	2016	8.390.900	1,59	1.469.114.903	1,01	0,57	7,40
	2018	8.580.158	2,26	1.575.821.351	7,26	0,54	7,51
	2020	8.976.038	4,61	1.599.124.533	1,48	0,56	7,85
	2022	9.586.039	6,80	2.145.417.734	34,16	0,45	8,41
Gipuzkoako Foru Aldundia	2010	6.156.422		910.651.000		0,68	8,80
	2012	5.428.110	-11,83	746.982.329	-17,97	0,73	7,60
	2014	5.422.395	-0,11	758.641.970	1,56	0,71	7,70
	2016	6.108.708	12,66	812.291.983	7,07	0,75	8,60
	2018	6.705.344	9,77	793.923.527	-2,26	0,84	9,35
	2020	7.687.009	14,64	863.620.595	8,78	0,89	10,69
	2022	7.576.204	-1,44	994.509.310	15,16	0,76	10,57
Foru Aldundiak GUZTIRA	2010	18.131.469		3.121.722.809		0,58	8,40
	2012	17.507.814	-3,44	2.744.590.556	-12,08	0,64	8,00
	2014	15.592.318	-10,94	2.616.316.872	-4,67	0,60	7,70
	2016	16.789.790	7,68	2.700.258.827	3,21	0,62	7,70
	2018	17.738.223	5,65	2.851.310.274	5,59	0,62	8,11
	2020	18.776.917	5,86	2.981.055.128	4,55	0,63	8,56
	2022	19.792.110	5,41	3.713.927.044	24,58	0,53	9,05

Iturria: Siadeco.


2.1.5. Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, erakundearen beraren euskara aurrekontu kontsolidatuak hartu dira erreferentzia moduan, barne-transferentziak azken kudeatzailearen aurrekontuetan kontsolidatuta.

Hori horrela, Eusko Jaurlaritzak, barneko sail eta erakundeen bidez, 104,1 milioi euro bideratu ditu euskarara. 2020ko euskara aurrekontuaren aldean eta 2018tik aurrerako joerari jarraituz, igo egin da (% 5,7): 2018an 94,4 milioi eurokoa izan zen, 2020an 98,4 milioi eurokoa eta 2022an, 104,1 milioi eurokoa. Hala ere, aurrekontu osoaren azpitik (% 16,5) hazi da, eta beraz, euskarara bideratutako aurrekontuaren ehunekoa zertxobait baxuagoa da (% 0,76). Aurrekontu osoa aztertutako epealdiko operazioa da (13,7 mila milioi euro), eta euskarakoa, 2010ekoaren (106,8 milioi euro) azpitik egon arren, 2012tik aurrera, azken hamar urteetako altuena da. Jaurlaritzak biztanleko jarritako diru-kopurua, inoiz erregistratutako altuena da (47,59 euro); erregistro baxuenarekin alderatuta (39,9 euro, 2016an), 7,69 euro gehiago jarri ditu erakundeak 2022an.


Azken hamabi urtetako joerei dagokionez, oraingo honetan bezala, ohikoena izan da euskara aurrekontuak aurrekontu osoak baino gutxiago igotzea euskarakoa. Aldiz, euskarara bideratutako aurrekontuak orokorrek baino bilakaera positiboagoa bitan izan du: 2012tik 2014ra eta 2018tik 2020ra.

5. grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren euskara aurrekontuak 2010-2022 (milioi €)



Iturria : Siadeco.

6. grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorraren, euskara aurrekontuaren eta euskara aurrekontuaren pisuaren 2010-2022 bilakaera (%)



Iturria: Siadeco.

8. taula. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu kontsolidatuak (2010-2022)

Erakundea	Urtea	EUSKARA aurrekontua		Aurrekontu OSOA		Euskara aurrekontuaren EHUNEKOA	Euskara aurrekontua biztanleko Eur/bizt
		€	Bilakaera (%)	€	Bilakaera (%)		
Eusko Jaurlaritza	2010	106.785.965		10.327.556.416		1,03	46,4
	2012	88.598.386	-17,03	10.246.437.704	-0,79	0,86	40,4
	2014	91.443.891	3,21	10.053.537.686	-1,88	0,91	42,1
	2016	86.975.067	-4,89	10.364.638.886	3,09	0,84	39,9
	2018	94.360.173	8,49	11.317.545.823	9,19	0,83	43,13
	2020	98.430.860	4,31	11.779.674.406	4,08	0,84	44,88
	2022	104.055.968	5,71	13.721.874.328	16,49	0,76	47,59

Iturria: Siadeco.

Eusko Jaurlaritzaren euskara arloko barne-transferentziak

Eusko Jaurlaritzako aurrekontuan erakundearen sailen eta erakunde autonomiadunen artean izandako diru transferentziak azken kudeatzailearen aurrekontuetan kontsolidatu direla, eta beraz, transferentzia egin duenaren aurrekontutik kendu egin direla, adierazi da aurreko atalean. Barne-transferentzia horiek sakonago aztertzen dira jarraian.

Eusko Jaurlaritzaren bi sail edo erakunde autonomok jasotzen dituzte gainontzeko sail edo erakundeen transferentziak: HABEk eta IVAPek.

HABE

Hizkuntza Politika eta Kultura Saitetik 46,5 milioi euro jaso ditu HABEk, 2022ko aurrekontu likidatuaren arabera. Hori da Jaurlaritzako sailetatik eta erakundeetatik jasotako ekarpenik handiena. Badira beste ekarpen batzuk ere, zenbateko mugatuagoa dutenak. Honako hauexek dira: IVAPek, 3,8 milioi euro; Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak, 878 mila euro; Hezkuntza Sailak, 640 mila euro; Lanbideak 217 mila euro; eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, 138 mila euro. Sail horietako langileen euskalduntzerako HABErekin dituzten hitzarmenak daude ekarpen horien oinarrian.

IVAP

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Sailak jartzen du IVAPen funtzionamendurako finantzaketa, eta horixe da IVAPek jasotako ekarpenik handiena diru-kopurutan: 10,8 milioi euro 2022an, aurrekontu likidatuaren arabera. Beste sail batzuetatik ere jaso ditu diru zenbatekoak, baina nabarmen bolumen txikiagoan, eta ezin izan da sailez saileko daturik zehaztu. Eusko Jaurlaritzako sailen eta erakundeen artean guztira 525 mila euro jaso ditu 2022an IVAPek, zehazki IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialari eskatutako itzulpen- eta berrikuspen-lanengatik.

9. taula. Eusko Jaurlaritzaren sail eta erakunde autonomoen arteko euskara arloko 2022ko barne transferentziak (dirulaguntzak eta fakturatutako zerbitzuak)

	Euskara aurrekontu likidatua 2022	Jaurlaritzako beste sail edo erakunde autonomoei egindako ordainketak 2022			Kontsolidaziorako aurrekontua	
		HABEra	IVAPera	Barne transferentziak GUZTIRA		
Saila	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	70.387.761,8	46.519.000,0		46.519.000,0	23.868.761,8
	Hezkuntza Saila	19.417.148,7	639.560,0		639.560,0	18.777.588,7
	Lehendakaritza	143.728,2			0,0	143.728,2
	Segurtasun Saila (funtzionarioak)	1.337.257,4	499.220,0		499.220,0	838.037,4
	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila	56.953,0			0,0	56.953,0
	Lan eta Enplegu Saila	115.181,6			0,0	115.181,6
	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	112.895,0			0,0	112.895,0
	Osasun Saila	281.468,2			0,0	281.468,2
	Ekonomia eta Ogasun Saila	109.854,0			0,0	109.854,0
	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila	82.907,0			0,0	82.907,0
	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila	10.941.210,3		10.788.505,0	10.788.505,0	152.705,3
	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila	355.877,0	137.759,0		137.759,0	218.118,0
	Guztira	103.342.242,2	47.795.539,0	10.788.505,0	58.584.044,0	44.758.198,2
Erakunde autonomiaduna	IVAP	10.266.622,0	3.800.000,0		3.800.000,0	6.466.622,0
	HABE	52.625.782,0			0,0	52.625.782,0
	EUSTAT	70.602,1			0,0	70.602,1
	EMAKUNDE	61.409,6			0,0	61.409,6
	OSALAN	65.382,0			0,0	65.382,0
	Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	1.228.753,9	877.955,0		877.955,0	350.798,9
	Lanbide Euskal Enplegu zerbitzua	367.953,9	216.521,5		216.521,5	151.432,4
	KONTSUMOBIDE	18.426,5			0,0	18.426,5
	Lehiaren Euskal Agintaritza	12.314,3			0,0	12.314,3
	Guztira	64.717.246,4	4.894.476,5	0,0	4.894.476,5	59.822.769,9
Hainbat sailetatik IVAPera			525.000,0	525.000,0	-525.000,0	
EUSKO JAURLARITZAREN ADMINISTRAZIO OROKORRA ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK GUZTIRA	168.059.488,5	52.690.015,5	11.313.505,0	64.003.520,5	104.055.968,0	

Iturria: Siadeco.

Eusko Jaurlaritzaren sailen eta erakundeen aurrekontu likidatuen bilakaera

Sailen eta erakunde autonomoen aurrekontu likidatuen bilakaera aztertzerakoan, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzako egitura aldaketek zuzenean eragiten dutela haien euskara aurrekontuetan.

10. taula. Eusko Jaurlaritza: Sail eta erakunde autonomiadunen euskara aurrekontuak (2012-2022)

Urtea	Erakundea	GUZTIRA	
		€	Bilakaera %
2012	Kultura Saila	48.998.124	
2014	Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	46.978.675	-4,12
2016	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	49.261.134	4,86
2018	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	56.155.174	13,99
2020	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	62.238.969	10,83
2022	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	70.387.762	13,09
2012	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	25.558.269	
2014	Hezkuntza Saila	28.686.896	12,24
2016	Hezkuntza Saila	24.037.051	-16,21
2018	Hezkuntza Saila	24.876.302	3,49
2020	Hezkuntza Saila	20.285.415	-18,45
2022	Hezkuntza Saila	19.417.149	-4,28
2012	IVAP	12.097.931	
2014	IVAP	12.698.661	4,97
2016	IVAP	10.275.968	-19,08
2018	IVAP	9.750.476	-5,11
2020	IVAP	10.978.163	12,59
2022	IVAP	10.266.622	-6,48
2012	HABE	37.534.202	
2014	HABE	37.658.065	0,33
2016	HABE	36.400.420	-3,34
2018	HABE	41.318.360	13,51
2020	HABE	46.422.854	12,35
2022	HABE	52.625.782	13,36
2012	Lehendakaritza	115.339	
2014	Lehendakaritza	172.180	49,28
2016	Lehendakaritza	170.118	-1,20
2018	Lehendakaritza	190.678	12,09
2020	Lehendakaritza	184.495	-3,24
2022	Lehendakaritza	143.728	-22,10
2012	Herrizaingo Saila	96.288	
2014	Segurtasun Saila	82.177	-14,65
2016	Segurtasun Saila	79.102	-3,74
2018	Segurtasun Saila	92.437	16,86
2020	Segurtasun Saila	89.916	-2,73
2022	Segurtasun Saila (funtzionarioak)	1.337.257	1387,23
2012	Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila	95.330	
2014	Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	144.787	51,88
2016	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila	110.740	-23,52
2018	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila	90.958	-17,86
2020	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	72.919	-19,83
2022	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	112.895	54,82

Urtea	Erakundea	Guztira	
		€	Bilakaera %
2018	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila	44.790	
2020	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila	53.878	20,29
2022	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila	56.953	5,71
2012	Osasun eta Kontsumo Saila	241.040	
2014	Osasun Saila	256.254	6,31
2016	Osasun Saila	278.055	8,51
2018	Osasun Saila	258.810	-6,92
2020	Osasun Saila	280.764	8,48
2022	Osasun Saila	281.468	0,25
2012	Eustat	62.906	
2014	Eustat	58.638	-6,78
2016	Eustat	59.352	1,22
2018	Eustat	128.466	116,45
2020	Eustat	97.892	-23,80
2022	Eustat	70.602	-27,88
2012	Emakunde	37.031	
2014	Emakunde	30.894	-16,57
2016	Emakunde	25.868	-16,27
2018	Emakunde	46.565	80,01
2020	Emakunde	39.612	-14,93
2022	Emakunde	61.410	55,03
2012	Osalan	16.550	
2014	Osalan	12.098	-26,90
2016	Osalan	5.102	-57,83
2018	Osalan	39.296	670,21
2020	Osalan	47.977	22,09
2022	Osalan	65.382	36,28
2012	Ertzaintza	664.675	
2014	Ertzaintza	702.089	5,63
2016	Segurtasuna (Ertzaintza)	1.420.541	102,33
2018	Segurtasuna (Ertzaintza)	1.766.767	24,37
2020	Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	2.122.814	20,15
2022	Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	1.228.754	-42,12
2012	Ekonomia eta Ogasun Saila	116.951	
2014	Ogasun eta Finantza Saila	48.098	-58,87
2016	Ogasun eta Finantza Saila	104.348	116,95
2018	Ogasun eta Finantza Saila	90.770	-13,01
2020	Ekonomia eta Ogasun Saila	110.959	22,24
2022	Ekonomia eta Ogasun Saila	109.854	-1,00
2012	Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila	231.384	
2014	Eusko Jaurlaritza - Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	184.834	-20,12
2016	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	115.942	-37,27
2018	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	118.446	2,16
2020	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila	104.654	-11,64
2022	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila	82.907	-20,78
2012	Justizia eta Herri Administrazio Saila	12.838.576	
2014	Herri Administrazio eta Justizia Saila	13.637.715	6,22
2016	Herri Administrazio eta Justizia Saila	11.743.538	-13,89
2018	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila	10.043.919	-14,47
2020	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila	10.138.707	0,94
2022	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila	10.941.210	7,92

Urtea	Erakundea	Guztira	
		€	Bilakaera %
2018	Lan eta Justizia Sails	904.466	
2020	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sails	853.576	-5,63
2022	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sails	355.877	-58,31
2012	Enplegu eta Gizarte Gaietako Sails	107.166	
2014	Enplegu eta Gizarte Politika Sails	127.570	19,04
2016	Enplegu eta Gizarte Politika Sails	145.133	13,77
2018	Enplegu eta Gizarte Politika Sails	106.873	-26,36
2020	Lan eta Enplegu Sails	106.292	-0,54
2022	Lan eta Enplegu Sails	115.182	8,36
2012	Lanbide	86.138	
2014	Lanbide	78.053	-9,39
2016	Lanbide	35.405	-54,64
2018	Lanbide	125.622	254,81
2020	Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua	402.762	220,61
2022	Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua	367.954	-8,64
2012	Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua	1.941	
2014	Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua	6.098	214,17
2016	Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua	9.000	47,59
2018	Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua	15.069	67,43
2020	Kontsumobide	11.524	-23,53
2022	Kontsumobide	18.427	59,90
2012	Lehiaren Euskal Agintaritza	877	
2014	Lehiaren Euskal Agintaritza	8.691	890,99
2016	Lehiaren Euskal Agintaritza	40.000	360,25
2018	Lehiaren Euskal Agintaritza	41.391	3,48
2020	Lehiaren Euskal Agintaritza	8.535	-79,38
2022	Lehiaren Euskal Agintaritza	12.314	44,28
2012	Eusko Jaurlaritza (kontsolidatua)	88.598.386	
2014	Eusko Jaurlaritza (Kontsolidatua)	91.443.891	3,21
2016	Eusko Jaurlaritza (Kontsolidatua)	86.975.067	-4,89
2018	Eusko Jaurlaritza (Kontsolidatua)	94.360.173	8,49
2020	Eusko Jaurlaritza (Kontsolidatua)	98.430.860	4,31
2022	Eusko Jaurlaritza (kontsolidatua)	104.055.968	5,71

Iturria: Siadeco.

2.2. Aurrekontu likidatuen guztirakoa

2.2.1. Euskara aurrekontu likidatuen bilakaera


2022an EAeko erakunde publikoek 175,1 milioi bideratu dituzte denera euskararen esparrura, 2020an baino ia 14 milioi euro gehiago (% 8,5ko igoera); 2010etik euskara aurrekontuetara bideratu den kopururik altuena da.

Zatirik handiena, bost eurotik ia hiru, Eusko Jaurlaritzak kudeatu du: 104,1 milioi euro. Udalak ageri dira bigarren lekuan, 41 milioi euroko zenbatekoarekin, erkidegoan euskararen arloan kudeatutako aurrekontuaren % 23,4. Foru Aldundiek 19,8 milioi bideratu dituzte euskarara (% 11,3), eta azkenik, hiriburuetakako udalek 10,2 milioi euro kudeatu dituzte, erkidegoko diruen % 5,9. Udalen kasuan, zenbatuta daude aldundietatik jasotako transferentziak; Foru Aldundien kasuan, aldiz, Eusko Jaurlaritzatik jasotakoak.

EAeko erakundeetako euskara aurrekontuen azken hamabi urteetako bilakaera orokorrari erreparatuz gero, guztirako aurrekontua % 5,7 hazi da 2010etik 2022ra. Dena den, ibilbide hori gorabeheratsua izan da. 2010ean 165,7 milioi euroko aurrekontua izatetik, 2012an aurrekontuak behea jo zuen 145,2 milioi eurora arte. 2014tik aurrera (148,3 milioi euro) berriro ere handitzen joan da euskarari zuzendutako diru-kopurua, eta bereziki 2018an egin zuen gora (160,4 milioi euro; 2016an baino 10 milioi euro gehiago). 2020an ildo beretik jarraitu eta gero, berriz igo da 2022an. Hamabi urteko ibilbide honetan erakundearen arabera, ondorengoa nabarmendu daiteke:

- Eusko Jaurlaritzak egiten du ekarpenik handiena erkidegoko euskara aurrekontuan, eta haren igoera-jaitsierek eragin handia dute kopuru orokorrean: 2020tik igo diren ia hamar milioietatik ia sei, Eusko Jaurlaritzaren igoerari dagokio.
- Milioi bateko igoerarekin, inoizko aurrekonturik altuena dute foru aldundietako aurrekontuek 2022an: 19,8 milioi euro. 2018ko eta 2020ko aurrekontuen artean izandako igoeran eragin zuzena izan zuen euskarazko hedabideen finantzaketarako Eusko Jaurlaritzak foru aldundiei egiten dien transferentziak –hori gabe, 2020ko kopurua 0,5 milioi euro baxuagoa izan zen–. Oraingoan, kopuru horri beste milioi bat euro gehitu zaizkio; eta beraz, transferentzia hori gabe –2022an 1,6 milioi eurokoa izan da–, 2018koa baino 0,7 milioi euro altuagoa izan da.
- Udalen kasuan ere igoera izan da 2022an. 5.000 biztanlez gaindiko udaletan 5,2 milioi euroko igoera izan da; duela 12 urte baino ia 10 milioi euro gehiago dituzte euskara arloko aurrekontuek. Eta hiriburuetan 1,9 milioi euro gehiago izan dituzte 2022an, 2018ko zenbatekoak berdinduz.

7. grafikoa. Euskara aurrekontu likidatuen bilakaera (2010-2022), erakunde-motari jarraikiz (milioi €)



Iturria: Siadeco.


2.2.2. Euskara aurrekontu likidatuek herri administrazioen guztirako aurrekontuen parean izandako bilakaera

Konparazio bat egin da atal honetan: zein izan den herri administrazioetako aurrekontu orokorren bilakaera eta zein euskara aurrekontuena. Aurrekontu orokorra igotzen denean, joera da euskarakoa hura baino gutxiago igotzea. Aurrekontu osoa jaitsiera izan denean, ez da joera argirik izan: 2012an, orokorra baino gehiago jaitsi zen euskarakoa, eta 2014an, aldiz, euskarakoa zertxobait igo zen. 2022an, zehazki, % 17,5 igo da erakundeen aurrekontu orokorra eta % 8,5, aldiz, euskarakoa.


- 2010-2012 epealdian, beheranzkoa agertu zen bi aurrekontuetan, baina ez neurri berean: aurrekontu orokorren jaitsiera halako bi izan zen euskararen esparrukoa, 6 puntu gehiago.
- 2012tik 2014rako tartean, aurrekontu orokorrek beherantz jarraitu zuten, baina bilakaera positiboa izan zuten euskara aurrekontuek. 3,7 puntuko aldea izan zen.
- 2014tik 2016ra, goranzkoa agertu zen bi aurrekontuetan. Nolanahi ere, proportzioan, handiagoa zen aurrekontu orokorraren igoera. 1,1 puntuko diferentzia.
- 2016tik 2018ra, igoera sendoagoa izan zuten aurrekontuek, baina, apalago bada ere, joera berretsi zen: euskara arloko aurrekontua baino gehiago igo zen orokorra, 0,8 puntu.
- 2018tik 2020ra ildo beretik: biak igo ziren, aurrekontu orokorra euskarakoa baino zertxobait gehiago (3,6 puntu).
- 2020tik 2022ra egonkortu egin da azken urteetako joera: bi aurrekontuek izan dute igoera; euskarakoa baino bi aldiz gehiago igo da orokorra, 9 puntu gehiago.

8. grafikoa. Euskara aurrekontuaren eta aurrekontu osoaren bilakaera 2010-2022 (milioi €)


Udalak (> 5 mila biztanle, hiriburuak salbu)




Hiriburuak




Foru aldundiak



Eusko Jaurlaritza



GUZTIRA



Iturria: Siadeco.

11. taula. Erakunde guztien euskara aurrekontu likidatuak (2010-2022)

Erakundea	Urtea	EUSKARA aurrekontua		Aurrekontu OSOA		Euskara aurrekontuaren EHUNEKOA
		€	Bilakaera (%)	€	Bilakaera (%)	
Udalak (> 5 mila biztante, hiruburuak salbu)	2010	31.725.090		1.669.049.134		1,90
	2012	31.464.309	-0,82	1.385.048.698	-17,02	2,27
	2014	32.663.089	3,81	1.375.708.420	-0,67	2,37
	2016	37.181.187	13,83	1.385.483.134	0,71	2,68
	2018	38.212.935	2,77	1.454.177.806	4,96	2,63
	2020	35.789.227	-6,34	1.494.869.845	2,80	2,39
	2022	41.008.773	14,58	1.729.073.543	15,67	2,37
	Hiriburuak	2010	9.031.339		1.361.333.120	
2012		7.630.391	-15,51	1.048.409.231	-22,99	0,73
2014		8.638.960	13,22	1.155.615.438	10,23	0,75
2016		9.169.887	6,15	1.094.278.134	-5,31	0,84
2018		10.122.526	10,39	1.118.077.217	2,17	0,91
2020		8.300.584	-18,00	1.180.892.118	5,62	0,70
2022		10.198.747	22,87	1.323.153.126	12,05	0,77
Foru Aldundiak		2010	18.131.469		3.121.722.809	
	2012	17.507.814	-3,44	2.744.590.556	-12,08	0,64
	2014	15.592.318	-10,94	2.616.316.872	-4,67	0,60
	2016	16.789.790	7,68	2.700.258.827	3,21	0,62
	2018	17.738.223	5,65	2.851.310.274	5,59	0,62
	2020	18.776.917	5,86	2.981.055.128	4,55	0,63
	2022	19.792.110	5,41	3.713.927.044	24,58	0,53
	Eusko Jaurlaritza (kontsolidatua)	2010	106.785.965		10.327.556.416	
2012		88.598.386	-17,03	10.246.437.704	-0,79	0,86
2014		91.443.891	3,21	10.053.537.686	-1,88	0,91
2016		86.975.067	-4,89	10.364.638.886	3,09	0,84
2018		94.360.173	8,49	11.317.545.823	9,19	0,83
2020		98.430.860	4,31	11.779.674.406	4,08	0,84
2022		104.055.968	5,71	13.721.874.328	16,49	0,76
GUZTIRA (aurrekontu likidatu ez kontsolidatuen batura)		2010	165.673.863		16.479.661.479	
	2012	145.200.900	-12,36	15.424.486.189	-6,40	0,94
	2014	148.338.258	2,16	15.201.178.416	-1,45	0,98
	2016	150.115.931	1,20	15.544.658.981	2,26	0,97
	2018	160.433.857	6,87	16.741.111.120	7,70	0,96
	2020	161.297.588	0,54	17.436.491.497	4,15	0,93
	2022	175.055.597	8,53	20.488.028.041	17,50	0,85

Iturria: Siadeco.

2.3. Euskara aurrekontu likidatuen kapitulu ekonomikoen araberako banaketa

Orokorra

Guztirako euskara aurrekontu likidatuen % 80,0 osatu dute bi atalek: transferentzia arruntek (IV. kapitulua, % 55,0) eta langileria gastuek (I. kapitulua, % 24,9). Horiei batuz gero ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak (II. kapitulua, % 19,7), euskara aurrekontua ia osatua legoke (% 99,7).

Euskara aurrekontuaren kapitulukako banaketa hori ez dator bat erakunde publikoen aurrekontu orokorraren egiturarekin. Euskara aurrekontuetan nabarmen pisu handiagoa du IV. kapituluak (transferentzia arruntak); pisu txikiagoa dute, aldiz, gainerako kapituluek (% 0,3), hau da, VI. kapitulua, inbertsio errealak; VIII. kapitulua, finantza aktiboak; III. kapitulua, finantza-gastuak; eta IX. kapitulua, finantza pasiboak.

Eusko Jaurlaritza

104,1 milioi eurotik % 60,2 IV. kapituluko ohiko transferentzietatik hartzen dute. Euskararen arloetako eta zerbitzuetako langileei dagokien gastuaren % 25,9, eta % 13,4 dute bigarren kapituluko zerbitzu kontratazioek.

Foru aldundiak

Diputazioetan, pisu handiagoa dauka IV. kapituluak (% 64,7), eta txikiagoa da langile gastuetako I. kapituluaren ehunekoak (% 21,1), baita ondasun eta zerbitzuen gastuaren II. kapitulua ere (% 14,3).


Udalak

Dirulaguntzekin lotutako arloak, IV. kapituluak, Eusko Jaurlaritzan eta diputazioetan baino pisu txikiagoa du udalen kasuan, erditik beherakoa (% 44,5). Aldiz, ondasun eta zerbitzuetako gastuek, II. kapitulukoek, garrantzi handiagoa daukate (% 32,6). Langileen gastuek dute aurrekontuaren % 22,9.

Hiriburuak

Udaletan nabari diren aldaketak handitu egiten dira hiriburuetan: II. kapituluak du pisurik handiena, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak (% 43,4). Langileria gastua dago bigarren (% 30,8), eta transferentzia arruntak segidan, beste erakundeetan baino nabarmen pisu apalagoarekin (% 25,8).

9. grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen aurrekontu likidatu osoaren eta euskara aurrekontu likidatuaren kapitulukako banaketa (%) (2022)



Iturria: Siadeco, 2022.

12. taula. 2022ko euskara aurrekontuen eta erakundeen aurrekontu propioaren kapitulu ekonomikoen arabera banaketa (%), erakunde-motaren arabera (aurrekontu likidatu ez kontsolidatuak)

Erakunde-mota		Aurrekontu-mota	I Kap.- Langileria gastuak	II Kap.- Ondasun eta zerbitzuen gastuak	IV kap. Transferent zia arruntak + VII kap. kapital transferent ziak	Gainerakoa k (III, VI, VIII eta IX kap.)	GUZTIRA
Udalak (> 5 mila biztanle, hiriburuak salbu)	Arabakoak	Euskara	34,65	34,06	31,30	0,00	100,00
		Osoa	34,98	39,84	11,10	14,07	100,00
	Bizkaikoak	Euskara	19,02	35,07	45,91	0,00	100,00
		Osoa	29,86	41,43	15,05	13,66	100,00
	Gipuzkoakoak	Euskara	25,93	30,16	43,84	0,08	100,00
	Osoa	31,05	35,81	16,40	16,75	100,00	
	GUZTIRA	Euskara	22,88	32,58	44,50	0,04	100,00
		Osoa	30,49	39,04	15,50	14,96	100,00
Hiriburuak	Gasteizko Udala	Euskara	15,61	65,53	18,86	0,00	100,00
		Osoa	42,70	32,58	13,27	11,45	100,00
	Bilboko Udala	Euskara	40,51	15,15	44,35	0,00	100,00
		Osoa	27,40	31,49	27,89	13,22	100,00
	Donostiako Udala	Euskara	44,76	35,30	19,93	0,00	100,00
	Osoa	28,97	28,80	37,96	4,27	100,00	
	GUZTIRA	Euskara	30,78	43,39	25,83	0,00	100,00
		Osoa	32,37	31,20	25,81	10,62	100,00
Foru aldundiak	Arabako Foru Aldundia	Euskara	39,87	24,72	35,40	0,00	100,00
		Osoa	12,58	9,51	54,89	23,02	100,00
	Bizkaiko Foru Aldundia	Euskara	20,26	15,06	64,68	0,00	100,00
		Osoa	10,61	21,98	46,10	21,31	100,00
	Gipuzkoako Foru Aldundia	Euskara	15,51	9,72	74,76	0,00	100,00
	Osoa	13,49	15,25	54,73	16,53	100,00	
	GUZTIRA	Euskara	21,05	14,30	64,65	0,00	100,00
		Osoa	11,69	18,25	49,77	20,29	100,00
Eusko Jaurlaritza		Euskara	25,91	13,38	60,17	0,54	100,00
		Osoa	18,22	31,87	39,32	10,59	100,00
GUZTIRA EAE (Aurrekontu likidatu ez kontsolidatuak)		Euskara	24,94	19,73	55,01	0,33	100,00
		Osoa	25,39	19,93	36,60	18,09	100,00

Iturria: Siadeco, 2022.

2.4. Euskara aurrekontu likidatu altuena duten erakundeak

EAEko euskara aurrekontuaren hamar eurotik sei jartzen ditu Eusko Jaurlaritzak, ia 3 euro udalen eta hiriburuen artean eta euro 1 pasatxo foru aldundiek. Dena den, kopuru absolututan guztirako euskara aurrekontuei ekarpenik handiena egiten dieten 20 erakundeen zerrenda eginez gero, badira esanguratsuak diren aldeak:

- Eusko Jaurlaritzaren ondoren, foru aldundiak eta hiriburuetakoko udalak dira kopuru absolututan euskara aurrekonturik oparoenak dituztenak. Jaurlaritzaren ondoren, Bizkaiko Foru Aldundia dago, 9,6 milioi euroekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak baino ia 2 milioi euro gehiago (7,6 milioi euro).
- Arabako Foru Aldundia, aldiz, hiru hiriburuen atzetik dago 2,6 milioi euroekin; Gasteizko Udalak (4,5 milioi euro) baino 2 milioi euro gutxiago bideratzen ditu euskara kontuetara.
- Zerrendan Gipuzkoako zazpi udalerrri daude, bizkaitarrak baino bat gehiago (sei daude). Eurotan, 590 mila euroko aldea da: Gipuzkoako udalerrri hauen artean 9,3 milioi euroko aurrekontua kudeatzen dute, eta Bizkaiko sei udalerrien artean, aldiz, 8,7 milioi eurokoa.

13. taula. EAEko euskara aurrekontu likidatuei ekarpen handiena egiten dieten EAEko 20 erakundeak

Kodea	Erakundea	Euskara aurrekontuak 2022		
		Guztira (€)	€/biztanle	Euskara aurrekontuaren pisua (%)
1010100	EUSKO JAURLARITZA (KONTSOLIDATUA)	104.055.968,02	47,59	0,76
48000	Bizkaiko Foru Aldundia	9.586.039,42	8,41	0,45
20000	Gipuzkoako Foru Aldundia	7.576.203,58	10,57	0,76
1059	Gasteizko Udala	4.503.617,62	18,15	1,13
20069	Donostiako Udala	3.034.270,09	16,69	0,99
48020	Bilboko Udala	2.660.858,79	7,82	0,43
1000	Arabako Foru Aldundia	2.629.866,56	7,95	0,46
48013	Barakaldoko Udala	2.229.718,00	22,68	1,63
20055	Arrasateko Udala	1.775.056,25	82,14	5,46
20045	Irungo Udala	1.731.450,45	28,87	2,11
48044	Getxoko Udala	1.701.131,08	22,49	1,69
20079	Zarauzko Udala	1.497.690,42	64,96	3,85
48015	Basauriko Udala	1.491.936,09	37,02	2,70
48036	Galdakaoko Udala	1.296.151,30	44,20	3,04
20902	Lasarte-Oriako Udala	1.253.588,49	64,84	5,72
20030	Eibarko Udala	1.131.191,46	41,92	2,69
48027	Durangoko Udala	1.024.946,29	34,58	2,71
20067	Errenteriako Udala	947.391,00	23,97	1,62
48029	Etxebarriko Udala	926.798,00	79,43	5,95
20064	Pasaiaiko Udala	923.861,19	55,97	4,64

Iturria: Siadeco, 2022.

Ildo beretik, euskara aurrekontuak aurrekontu osoarekiko pisua handiena duten 20 erakundeak, guztiak udalak dira. Horietatik hirutan aurrekontu osoaren % 5 baino gehiago doa euskarara: Etxebarriko Udala, Lasarte-Oriako Udala eta Arrasateko Udala.

14. taula. Euskara aurrekontuak aurrekontu osoarekiko pisu handiena duen EAEko 20 erakundeak.

Kodea	Erakundea	Euskara aurrekontuak 2022		
		Guztira (€)	€/biztanle	Euskara aurrekontuaren pisua (%)
48029	Etxebarriko Udala	926.798,00	79,43	5,95
20902	Lasarte-Oriako Udala	1.253.588,49	64,84	5,72
20055	Arrasateko Udala	1.775.056,25	82,14	5,46
20032	Elgoibarko Udala	814.207,76	71,46	4,84
20064	Pasaiaiko Udala	923.861,19	55,97	4,64
48016	Berangoko Udala	374.217,97	49,78	4,36
20019	Beasaingo Udala	813.159,34	59,08	4,29
20072	Urnietako Udala	514.978,25	83,59	4,20
20059	Oñatiko Udala	787.605,82	68,79	3,98
20079	Zarauzko Udala	1.497.690,42	64,96	3,85
48046	Gernika-Lumoko Udala	711.647,87	42,84	3,72
48080	Trapagarango Udala	571.980,06	48,64	3,67
48011	Arrigorriagako Udala	495.872,00	42,35	3,61
20053	Lezoko Udala	388.176,13	64,26	3,31
20018	Azpeitiko Udala	772.560,21	50,51	3,27
48036	Galdakaoko Udala	1.296.151,30	44,20	3,04
48085	Sopelako Udala	546.402,19	40,10	3,03
20075	Villabonako Udala	194.217,94	33,91	2,90
48003	Amorebieta-Etxanoko Udala	870.382,93	45,28	2,83
20013	Arexabaletako Udala	301.749,26	42,59	2,81

Iturria: Siadeco, 2022.

3

EAEko EUSKARA AURREKONTU KONTSOLIDATUA



3.1. Herri-administrazioen arteko euskara arloko transferentziak

Eusko Jaurlaritzak aldundietara zuzendutako finantzaketa

Eusko Jaurlaritzak 1,6 milioi euroko transferentziak egin dizkie foru aldundiei, euskarazko hedabideak finantzatzeko dirulaguntzak ordaintzera bideratutako hitzarmenaren baitan.


Udalen kasuan Eusko Jaurlaritzak proiektu zehatzetarako egiten dizkie transferentziak, besteak beste, Andoaingo Udalarik Rikardo Arregi Sariak finantzatzeko ekarpena egiten dio –2022an, 15.000 eurokoa izan da–.

Eusko Jaurlaritzak HABEren bidez udalei edo udal erakundeen menpeko euskaltegi publikoei emandako dirulaguntzak Jaurlaritzaren aurrekontu gisa jaso dira, eta beraz, ez dira udalek kudeatutako aurrekontu likidatuan sartu. Udal edo udal erakundeen menpeko euskaltegiak dituztenen kasuan, udalaren aurrekontu likidatuan sartu dena izan da udalak euskaltegiari egindako ekarpena; hau da, HABEren dirulaguntza eta matrikula sarrerak kontuan hartu gabe udalak euskaltegia finantzatzeko jarritako diru-kopurua.

Foru aldundiek udaletara eta hiriburuetara zuzendutako dirulaguntzak

5.000 biztanle baino gehiago udalek 783 mila euroko ekarpena jaso dute foru aldundietatik, euskara sustatzeko programetarako; hiru hiriburuetako udalek 99 mila euroko ekarpena jaso dute.

10. grafikoa. Erakunde esparruen arteko euskararako diru-transferentziak (2022)




*Andoingo Udalak jasotzen ditu 15 mila euro Eusko Jaurlaritzatik, Rikardo Arregi kazetaritza sarirako.

Iturria: Siadeco, 2022.


3.2. Udalen, hiriburuen eta aldundien finantzaketa-iturriak

Udalen zein aldundien euskara aurrekontuak, batez ere, norbere funtsetatik egindako ekarpenekin elikatzen dira: udalen eta hiriburuen kasuan kopuru osoaren % 98,3 jarri dute beren baliabideetatik —horren barruan daude euskara arloko diru-sarrera propioak, tasak eta horrelakoak kobratzetik datozenak: % 1,5—, eta aldundien kasuan, aldiz, % 91,8. Gainontzekoa beste erakunde batzuen transferentzietatik jasotzen da: udalen eta hiriburuen kasuan foru aldundien dirulaguntzak dira % 1,7, eta foru aldundiei dagokienean, aldiz, Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenak dira aurrekontuen % 8,2.

11. grafikoa. Udalen finantzaketa-maila propioa (hiriburuak barne) (%)



12. grafikoa. Aldundien finantzaketa-maila propioa (%)



Iturria: Siadeco, 2022.

Udalak

5.000 biztanle baino gehiagoko herrietan, udalen funtsetatik finantzatu da euskara aurrekontuaren % 96,8. Euskara arloarekin lotutako sarreretatik aurrekontuaren % 1,5 iritsi da (matrikulak, tasak...), eta aldundiaren laguntzetatik, % 1,7. Foru aldundiaren laguntzek Bizkaiko udaletan daukate pisurik handiena (% 3,0), eta apalena, Gipuzkoako udaletan (% 0,9).

Hiriburuak

Gainerako udalekin konparatuta, foru aldundien ekarpenetatik aurrekontuaren zati txikiagoa finantzatu dute hiriburuak: euskara aurrekontuaren % 1,0 (Donostiak gehien, % 1,3). Baina euskara arloko diru-sarrerak oparagoak dira hiriburuetan, nahiz eta Bilboko Udalak ez daukan gisa horretako diru-sarrerarik: hiriburuak batera hartuta, aurrekontuaren % 5,2 hartzen dute diru-sarrera propioen bidez –Gasteizkoak gehiago (% 7,8)–.

Foru aldundiak

Euskarazko hedabideak finantzatzeko hitzarmenaren harira, Eusko Jaurlaritzak diru-ekarpena egiten die foru aldundiei 2019tik. 2022an foru aldundien guztirako euskara aurrekontuaren % 8,2 hartu du; Gipuzkoan du pisu handiena, % 13,1.

15. taula. Euskara aurrekontuen finantzaketa modua (2022)

Erakunde mota	Erakundeen dirulaguntzak						Euskara arloko diru sarrera propioak (tasak, matrikulak...)	Norbere funtsetatik finantzatutakoa		Euskara aurrekontu likidatua GUZTIRA		
	Foru aldundiko dirulaguntzak		Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak		Jasotako dirulaguntzak GUZTIRA			€	%	€	%	
	€	%	€	%	€	%		€	%	€	%	
Udalak	794.445	1,94	15.000	0,04	809.445	1,97	232.419	0,57	39.966.908	97,5	41.008.773	100,00
Arabakoak	16.688	1,58	-	-	16.688	1,58	24.305	2,30	1.013.446	96,1	1.054.438	100,00
Bizkaikoak	587.457	3,03	-	-	587.457	3,03	96.640	0,50	18.720.509	96,5	19.404.607	100,00
Gipuzkoakoak	190.300	0,93	15.000	0,07	205.300	1,00	111.474	0,54	20.232.953	98,5	20.549.728	100,00
Hiriburuak	99.584	0,98	-	-	99.584	0,98	525.974	5,16	9.573.188	93,9	10.198.747	100,00
Gasteiz	40.000	0,89	-	-	40.000	0,89	351.841	7,81	4.111.776	91,3	4.503.618	100,00
Bilbo	20.409	0,77	-	-	20.409	0,77	-	-	2.640.450	99,2	2.660.859	100,00
Donostia	39.175	1,29	-	-	39.175	1,29	174.133	5,74	2.820.962	93,0	3.034.270	100,00
Aldundiak	-	-	1.626.211	8,22	1.626.211	8,22	-	-	18.165.899	91,8	19.792.110	100,00
Arabako FA	-	-	147.350	5,60	147.350	5,60	-	-	2.482.517	94,4	2.629.867	100,00
Bizkaiko FA	-	-	490.118	5,11	490.118	5,11	-	-	9.095.921	94,9	9.586.039	100,00
Gipuzkoako FA	-	-	988.743	13,05	988.743	13,05	-	-	6.587.461	86,9	7.576.204	100,00
Eusko Jaurlaritza	-	-	-	-	-	-	1.331.178	1,28	102.724.790	98,7	104.055.968	100,00
GUZTIRA	894.029	0,51	1.641.211	0,94	2.535.240	1,45	2.089.571	1,19	170.430.785	97,4	175.055.597	100,00

Iturria: Siadeco, 2022.

3.3. 2022ko euskara aurrekontu kontsolidatua

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek 172,5 milioi euroko aurrekontu bateratua edo kontsolidatua izan dute 2022an, aurrekontu likidatua baino 2,5 milioi euro baxuagoa. Kopuru hori kalkulatzeko, erakunde guztien euskara aurrekontuak batu aurretik, kendu egin dira erakunde-arte transferentziak, modu honetara: udalen aurrekontutik, udalek aldundietatik eta Jaurlaritzatik jasotako kopuruak kendu dira, 783 mila euro eta 15 mila euro, hurrenez hurren; hiriburu aurrekontutik, aldundietatik jasotako dirulaguntzen zenbatekoa kendu da, 99,6 mila euro; eta aldundien aurrekontutik, euskarazko hedabideen proiektuak finantzatzeko Jaurlaritzatik jasotakoa murriztu da, zehazki, 1,6 milioi euro. Eragiketa horren emaitzak adierazten du erakundeek benetan zenbat diru bideratu duten euskararen arlora —guztien artean kudeatu duten euskara aurrekontu likidatuaren batura handiagoa da aurrekontu kontsolidatua baino—.

Eusko Jaurlaritzaren euskara aurrekontuak du pisu gehien zenbateko osoan: % 60,3. Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzaren sailek eta erakunde autonomiadunek 104,1 milioi euro bideratu dituzte 2022an euskara arlora —sailen arteko edo sailetatik erakunde autonomiadunetarako transferentziak bikoiztu gabe egin da kalkulua—.

Hiru foru aldundiek 18,2 milioi euro jarri dituzte; hots, erkidegoko aurrekontu kontsolidatuaren % 10,5. Udalei —hiriburuei barne— dagokiena da gainontzekoa, euskara aurrekontu kontsolidatuaren % 29,2: 5.000 biztanlez gaindiko udalena da zatirik handiena, % 23,3 (40,2 milioi euro), eta hiriburuena % 5,8 (10,1 milioi euro). Udalen kasuan kenduta daude foru aldundiek udaletara egindako transferentziak.

16. taula. Erakunde arteko transferentzien arabera kontsolidatutako euskara aurrekontuak 2022

Erakundea	EUSKARA aurrekontua	
	€	%
Udalak (> 5 mila biztanle, hiriburuak salbu)	40.210.328	23,31
Hiriburuak	10.099.162	5,85
Foru Aldundiak	18.165.899	10,53
Eusko Jaurlaritza	104.055.968	60,31
EAE GUZTIRA	172.531.357	100,00

Iturria: Siadeco, 2022.

Oharra: udaletan, hiriburuetan eta aldundietan, aurrekontu propioetik finantzatutako aurrekontua


3.4. Euskara aurrekontu kontsolidatuaren bilakaera, 2010-2022

2020an COVID-19aren pandemiak eragindako egoeraren ondoren, aurreko urteetako erritmoa berreskuratu du eta 2018an baino gehiago hazi da euskara aurrekontua: % 8,5. Hazkundera bereziki handia izan da hiriburuetan (% 22,9) eta udaletan (% 14,8), eta euskara aurrekontu kontsolidatuaren igoeraren ia erdia bi erakunde hauei dagokie: kopuru absolututan 13,6 milioi euroko igoera izan du guztirako euskara aurrekontuak, horietatik % 51,9 udalen aurrekontuei esker (7,1 milioi euro). Foru aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako igoera, berriz, txikiagoa izan da (% 5,2 eta % 5,7, hurrenez hurren). Azken 12 urteak hartuta, Eusko Jaurlaritza ez diren gainontzeko erakundeek, kontsolidatutako inoizko aurrekonturik altuenak izan dituzte 2022an.

Azken hamarkadan, 2012 eta 2022 bitarte, batez beste % 4,1 igo da EAEko euskara aurrekontu kontsolidatua. Hona hemen 2010 eta 2022 bitarte izandako bilakaeraren gako aipagarrienak:

- Lehen epealdian (2010-2012), beherakada nabarmena izan zen aurrekontuan, administrazio publikoan orduan nabaritu baitzen 2008ko krisi ekonomikoaren eragina: -% 12,9. Erakunde esparru guztietan jaitsi ziren kopuruak, eta Eusko Jaurlaritzan, are gehiago (% 17).
- Bigarren epealdian (2012-2014) nabaritu zen joera aldaketa: igoera, %2,8koa. Aldundietan ez beste erakunde guztietan handitu zuten euskararen arlorako aurrekontu kontsolidatua: Jaurlaritzak 2,8 milioi eurotan, udalek 2,1 milioi eurotan eta hiriburuak 995 mila eurotan. Proporzioan, hiriburuetako aurrekontua igo zen gehien (% 13,8).
- Hirugarren tartean (2014-2016), berretsi egin zen igoera, nahiz eta 2012-2014 epealdian baino txikiagoa izan zen hazkundera (% 1,4). Hiriburu ez diren udalek izan zuten gorakadarik sendoena, % 15,5ekoa. Gora egin zuten aldundiek (% 7,7) eta hiriburuetako udalek (% 7,6) ere. Jaurlaritza izan zen salbuespena: % 4,9 murriztu zuen euskara aurrekontu kontsolidatua.
- Laugarren epealdian (2016-2018), gorabidea sendotu egin zen, aurreko bietan baino igoera handiagoarekin: % 7,2. Proporzioan, hiriburuak hazi zuten gehien aurrekontua (% 11,5). Orokorra izan zen igoera: Jaurlaritzan, % 8,5; aldundietan, % 5,6; eta udaletan, % 3,5.
- Bosgarren epealdian (2018-2020), hazkundera eten zen; EAEko euskara aurrekontu kontsolidatua, guztira, zertxobait igo zen (% 0,3ko igoera), Eusko Jaurlaritzarena igo egin zelako (% 4,3), baina udalen (-% 3,9), hiriburuak (-% 16,6) eta aldundien (-% 2,7) euskara aurrekontuak jaitsi egin ziren, oro har.
- Seigarren epealdian (2020-2022), berriro ere, hazkundeari heldu dio: erakunde guztietan izan da igoera, baina, bereziki, hiriburuetan (% 22,9) eta udaletan (% 14,8), eta gutxiago Eusko Jaurlaritzan (% 5,7) eta foru aldundietan (% 5,2).

13. grafikoa. Euskara aurrekontu kontsolidatuaren bilakaera 2010-2022 (milioi €)




Iturria: Siadeco.

Bestalde, erakunde esparruen bilakaera aztertuz gero, 2012an hasita, eta 2020eko salbuespeneko egoera kontuan hartu gabe, udalen eta hiriburuaren ekarpena igo egin da: 2012an, 28 eta 7 milioi euroko ekarpena egiten duten euskara sustatzeko; eta 2022an, udalek 40 milioi eurokoa eta hiriburuak 10 milioi eurokoa. EAEko guztirako euskara aurrekontu kontsolidatuaren haien pisua ere igo egin da, ondorioz: % 25,1ekoa zen 2012an, eta % 29,2ekoa izan da 2022an.

Aldundien kasuan, igo egin da, baita ere, euskararako aurrekontu kontsolidatua, baina txikiagoa izan da igoera hori: 2012tik 2022ra 660 mila euro hazi da (17,5 milioi euro izatetik, 18,2 milioi euro izatera). Horrek eragina izan du EAEko euskara aurrekontu kontsolidatuaren barnean duten ehunekoan, ia bi puntu jaitsi da, % 12,3tik % 10,5ra.

Azkenik, Eusko Jaurlaritza beste bi erakunde-moten artean kokatzen da: % 17 igo da EAE mailako erakundearen aurrekontua 2012tik 2022ra eta aurrekontu osoarekiko pisua galdu egin du % 62,5ekoa izatetik % 60,3koa izatera.

14. grafikoa. Udalen, hiriburuen, aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren EAEko euskara aurrekontu kontsolidatuarekiko ekarpena (%), 2010-2022



Iturria: Siadeco.

17. taula. Erakunde arteko transferentzien arabera kontsolidatutako euskara aurrekontuak (2010-2022)

Erakundea	Urtea	EUSKARA aurrekontua		Bilakaera (%)
		€	%	
Udalak (> 5 mila biztanle, hiriburuak salbu)	2010	29.340.118	18,03	
	2012	28.444.988	20,06	-3,05
	2014	30.497.349	20,92	7,22
	2016	35.230.958	23,83	15,52
	2018	36.455.170	23,01	3,47
	2020	35.033.855	22,04	-3,90
	2022	40.210.328	23,31	14,78
Hiriburuak	2010	8.494.986	5,22	
	2012	7.227.229	5,10	-14,92
	2014	8.222.002	5,64	13,76
	2016	8.843.245	5,98	7,56
	2018	9.861.918	6,23	11,52
	2020	8.220.585	5,17	-16,64
	2022	10.099.162	5,85	22,85
Foru Aldundiak	2010	18.131.469	11,14	
	2012	17.507.814	12,35	-3,44
	2014	15.592.318	10,70	-10,94
	2016	16.789.790	11,36	7,68
	2018	17.738.223	11,20	5,65
	2020	17.264.834	10,86	-2,67
	2022	18.423.552	10,53	5,22
Eusko Jaurlaritza	2010	106.785.965	65,61	
	2012	88.598.386	62,49	-17,03
	2014	91.443.891	62,74	3,21
	2016	86.975.067	58,83	-4,89
	2018	94.360.173	59,56	8,49
	2020	98.430.860	61,93	4,31
	2022	104.055.968	60,31	5,71
EAE GUZTIRA	2010	162.752.538	100,00	
	2012	141.778.417	100,00	-12,89
	2014	145.755.560	100,00	2,81
	2016	147.839.060	100,00	1,43
	2018	158.415.483	100,00	7,15
	2020	158.950.134	100,00	0,34
	2022	172.531.356	100,00	8,54

Iturria: Siadeco.

Oharra: udaletan, hiriburuetan eta aldundietan, aurrekontu propiotik finantzaturako aurrekontua

Aipatutako bilakaera hori argi ikusten da herri-erakundeek biztanleko jarri duten diru-kopuruan. Udalek eta hiriburuak biztanleko jarritakoa inoizko kopururik altuena izan da 2022koa: udalek 33,59 euro jarri dituzte biztanleko; hiriburuak, 13,11 euro biztanleko. Foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan, 2010eko datua ez dute gainditu. 2010eann 8,36 euro jarri zituzten biztanleko foru aldundiek, eta 49,23 euro Eusko Jaurlaritzak. 2022an, 8,31 euro foru aldundiek eta 47,59 Eusko Jaurlaritzak.

Orotara, biztanleko jarritakoa inoizko kopururik altuena izan da, 78,91 euro.

18. taula. Euskara aurrekontu kontsolidatuen biztanleko ratioak, erakunde-motaren arabera (2010-2022) (€ biztanleko)

Urtea	Udalak	Hiriburuak	Foru aldundiak	Eusko Jaurlaritza	EAE GUZTIRA (aurrekontu kontsolidatua)
2010	25,07	10,93	8,36	49,23	75,03
2012	24,14	9,26	7,98	40,40	64,65
2014	25,75	10,77	7,18	42,08	67,08
2016	29,73	11,56	7,72	39,97	67,95
2018	30,64	12,79	8,11	43,13	72,40
2020	29,27	10,64	7,87	44,88	72,47
2022	33,59	13,11	8,31	47,59	78,91

Iturria: Siadeco.

Oharra: udal, hiriburu eta foru aldundietan, aurrekontu propioetik finantzatutako aurrekontua

4

JARDUERA-EREMUEN ARABERAKO AURREKONTUAK



4.1. Eremuen definizioa

Euskara aurrekontuen zenbatekoak eta azken urteetako bilakaeraren datuak aztertu ondoren, atal honetan aztergai izango da euskara aurrekontuak zein normalizazio-eremutara bideratu diren.

Euskararen jabeakuntza helburu duten eremuak

1 | Familia bidezko transmisioa

Euskararen familia bidezko transmisiorako sentiberatze- eta informazio-kanpainak; gurasoak euskarara eta euskal kulturara erakartzeko produktuen sustapena; gurasoen hizkuntza-ohituretan eragiteko programak; guraso eta umeek euskara erabiltzeko guneak bultzatzea.

2 | Irakaskuntza

Hezkuntzaren alorrera zuzendutako euskarazko baliabide, programa eta dirulaguntza guztien aurrekontua: euskararen ezagutza-maila eta erabilera hobetzeko prestakuntza-programak eta baliabide berriak; euskarazko ikasketen eskaintza sendotzeko egitasmoak (lanbide-heziketa, gradu eta graduondoko ikasketak); ikastetxearen ingurune hurbilean euskarazko harremanak sustatzeko programak; ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak.

3 | Euskalduntze-alfabetatzea

Euskara ikasleei zuzendutako dirulaguntzak; euskaltegi pribatuei egindako diru-ekarpenak; udal-euskaltegiaren funtzionamendu gastu eta pertsonal gastuetarako erakundeak ipinitako diru-baliabideak (HABEren diru-ekarpena kenduta); gelaz kanpoko erabilera sustatzeko ekimenak (mintzapraktika egitasmoak); atzerriarrentzako idatzizko materialak; euskalduntze-alfabetatze alorrerako ikasmaterialak, oro har.

Euskararen erabilera sustatzeko programa sektorialak

4 | Administrazioa

Erakundearen hizkuntza erabilera edota hizkuntza kudeaketarako planen diseinua eta egikaritzea; herri-administrazioetako langileen euskara-gaitasuna hobetzeko prestakuntza programak (ordezkapen gastuak barne); erakundearen komunikazioetan euskararen erabilera bermatzeko itzulpen lanen gastuak; administrazioaren informazio eta komunikaziorako teknologia berrietan euskarazko erabilpena sustatzea; herri administrazioaren eskumeneko hizkuntza paisaia; herritarrekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko ekimenak; beste administrazioekiko harremanetan euskararen erabilera indartzeko ekimenak

5 | Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

Euskarazko softwarea eta baliabide teknologikoak sortu eta zabaltzeko egitasmoak eta dirulaguntzak (sistema eragileak, aplikazioak, multimedia tresnak, itzulpen automatikorako eta sare sozialetarako tresnak, euskarazko zuzentzaile ortografikoak...; Interneten euskarazko edukien presentzia indartzeko ekimenak (hedabideetan, sare sozialetan, enpresen webguneetan...).

6 | Arlo sozioekonomikoa

Euskara planak enpresetara zabaltzeko programak eta dirulaguntzak; merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan eragiteko egitasmoak; enpresa eta establezimenduetako hizkuntza paisaia euskalduntzeko dirulaguntzak; enpresa eta establezimenduetako langileen euskara gaitasuna hobetzeko ikastaro bereziak edo langileentzako dirulaguntzak.

7 | Aisia eta kirola

Aisialdiko jardueretan euskarazko eskaintza indartzeko egitasmoak (haur eta gazteentzako eskaintza, adin tarte guztientzako aisia eskaintza); begiraleen prestakuntza; etorkinen integrazioarako euskarazko aisialdi programak; aisialdirako euskarazko produktuen sorkuntza eta zabalpena; kirol elkarreetan eta kirol ikuskizunetan euskara indartzeko proiektuak.

Euskararen elikadura helburu duten eremuak (corpusa, hedabideak eta kulturgintza)

8 | Liburugintza

Euskaraz argitaratutako liburu eta argitalpen elektronikoen merkaturia zabaltzea eta kontsumoa sustatzea; euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea (liburutegietako programak, irakurketa tailerrak...).

9 | Kulturgintza

Liburugintza eta literatura ez diren gainerako kultur sektore guztietan euskarazko kultura sortu eta kontsumitzeko ekimen eta dirulaguntzak (antzerkia, musika, bertsolaritza...).

10 | Publizitatea

Euskarazko publizitatearen sorkuntza sustatzeko laguntzak, lehiaketak eta sariak; euskarazko publizitate kanpainen kontratazioa lehenesteko neurriak.

11 | Corpus plangintza eta euskararen kalitatea

Euskararen kalitatea, euskara estandarra eta euskarazko terminologia elikatu eta zabaltzeko era guztietako proiektuak eta erakundeekiko lankidetzak; adierazkortasuna eta tokian tokiko euskalkiak indartzeko egitasmoak; toponimia eguneratu eta zabaltzeko ekimenak; ahozko ondarea bildu eta zabaltzeko egitasmoak...

12 | Hedabideak

Euskarazko hedabideei emandako dirulaguntzak (herri aldizkariak, aldizkari orokorrak, egunkariak, irrati eta telebistak, Internet...); hedabideetan euskararen presentzia indartzeko proiektuak.

Euskara sustapen-, ikerketa- eta komunikazio-ekintza orokorrak

13 | Informazio, sentsibilizazio eta komunikazio ekintza orokorrak

Erakundetik bultzatutako euskararen aldeko motibazio eta sentsibilizazio ekintza orokorrak (Euskararen Nazioarteko Eguna, euskararen aldeko kanpainak, etorri berriei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak, gazteengan eragiteko komunikazio programak...).

14 | Azterlan eta plangintza orokorrak

Erakundeak berak finantzatutako izaera orokorreko hizkuntza diagnostikoak eta hizkuntza normalkuntzarako azterlan eta plangintzak: ikerketa soziolinguistikoak, kale erabilera neurtzeko azterlanak, euskara sustatzeko plangintza estrategiakoak, eta abar.

15 | Toki entitatea eta mankomunitateentzako dirulaguntza orokorrak

Udal, mankomunitate eta entitate publikoetan EBPN/ESEP eta euskararen sustapenerako bestelako egitasmo orokorrak garatzeko, erakundeak entitate horiei emandako dirulaguntzak.

16 | Bestelako egitasmo, dirulaguntza eta hitzarmenak

Aurreko ataletan jaso ez diren gastuez aparte, euskara elkarteei, euskalgintzako eragileei nahiz euskararen aldeko proiektuetan erakundeak kolaboratzen duen bestelako edozein entitateei egindako diru-ekarpenak...

Herri-administrazioetako euskara atalen egitura- eta funtzionamendu-gastuak

17 | Erakundeko euskara arloaren egiturazko gastuak

Euskara zerbitzu edo arloaren ohiko giza baliabide eta baliabide teknikoen gastuak: bertako langileen pertsonal gastuak, euskara zerbitzuaren kudeaketarako kanpoko enpresei egindako ordainketak eta bestelako funtzionamendu gastu orokorrak (hornidura gastuak, energia, alokairu gastuak...).

4.2. Udalak

Hiriburuak alde batera utzita, 5.000 biztanle baino gehiagoko udalek 41 milioi euroko aurrekontu likidatua izan dute 2022an. Zazpi esparrutara bideratu dute udalen aurrekontuen % 87,0 (35,7 milioi euro): euskalduntze-alfabetatzea (% 31,7), egiturazko gastuak (% 17,9), aisia eta kirola (% 13,0), administrazioa (% 6,8), irakaskuntza (% 6,0), kulturgintza (% 5,9) eta hedabideak (% 5,7). Gainontzeko eremuak % 5etik behera daude.

Euskalduntze-alfabetatzea. 13,0 milioi euro bideratu dituzte helduen euskalduntze-alfabetatzera; tartean daude euskaltegien finantzaketa eta euskara ikasleen laguntzak. Udaletako euskara aurrekontuan pisu gehien duen eremua da, ia heren bat hartzen du.

Egiturazko gastuak. 7,3 milioi euro hartu dituzte udaletako euskara arloetako langileriaren eta funtzionamendu orokorreko gastuek.

Aisia eta kirola. Euskarazko ludotekak eta udalekuak daude esparru horretan, eta kirola eta aisia euskalduntzeko egitasmoak, adibidez. 5,3 milioi euro bideratu dituzte udalek.

Administrazioa. 2,8 milioi euro jarri dituzte administrazioan; besteak beste, itzulpenetarako eta erabilera-planetarako.

Irakaskuntza. 2,5 milioi euro bideratu dituzte irakaskuntzaren arloko ekimenen bidez euskara sustatzera.

Kulturgintza. 2,4 milioi euro erabili dituzte udalek liburugintza eta literatura ez diren kulturaren arloko euskarazko gainerako ekimenetarako.

Hedabideak. 2,3 milioi euro bideratu dituzte komunikabideetan euskara sustatzeko. Diruzenbateko horren zati gehiena euskarazko hedabideak finantzatzeko dirulaguntzetan eman dute.

Zati txikiagoa bideratzen dute udalek gainontzeko hamar esparru hauetara: informazio- eta sentiberatze-ekintzak (% 2,7), familia bidezko transmisioa (% 2,5), tokiko entitateei dirulaguntza orokorrak (% 2,2), bestelako dirulaguntzak (% 2,0), arlo sozioekonomikoa (% 1,4), liburugintza (% 0,7), azterlan eta plangintza orokorrak (% 0,6), euskararen corpusa eta kalitatea (% 0,5), IKTak (% 0,2) eta publizitatea (% 0,2).

Lurraldearen arabera, Arabako udaletan pisu handiagoa du aisia eta kirolak; Bizkaikoetan, euskalduntze-alfabetatzeak; eta Gipuzkoakoetan, aldiz, hedabideek.

Bilakaera


5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalek 2020an baino 5,2 milioi euro gehiago bideratu dituzte euskararen sustapenera. Igoera horren % 80,0 bost eremu hauetako aurrekontua igotzeko erabili da: euskalduntze-alfabetatzerako 1,3 milioi euro gehiago jarri dituzte udalek; aisia eta kirolaren esparrura 1,1 milioi euro gehiago

bideratu dituzte; kulturegintzan 685 mila euroko igoera izan da; egiturako gastuak 559 mila euro hazi dira; eta irakaskuntzako aurrekontua 449 mila euro igo da.

Euskalduntze-alfabetatzera inoizko kopururik altuena bideratu dute udalek 2022an; hamabi urtean 4,5 milioi euro igo da eremu honetara bideratutako zenbatekoa –% 53,5 gehiago da–.


Azken bi epealdietako bilakaera aztertuz gero, 2020an COVID-19ak eragindako jaitsieretatik errekuperatu eta diru gehiago jarri dute udalek zenbait eremutan, besteak beste: familia bidezko hizkuntza-transmisiorako 2020an baino 248 mila euro gehiago jarri dira (% 32,3); azterlan eta plangintza orokorren esparruan 130 mila euroko igoera dago (% 119,4); liburugintzara 60 mila euro gehiago bideratu dute 2022an (% 25,0); eta kulturegintzarako 685 mila euro gehiago jarri dute orain (% 39,5). Eta alderantziz, beste zenbait kasutan, 2022ko igoera ez da 2020ko jaitsieraren parekoa izan, eta 2022an eremu horietarako jarritako zenbatekoa nabarmen txikiagoa da 2018koa baino. Horiek dira: aisia eta kirolaren esparrura 6 milioi euro bideratu ziren 2018an eta 5,3 milioi euro bideratu dira 2022an; administrazioaren eremua 3,4 milioi euroko aurrekontua izatetik 2,8 milioi eurokoa izatera pasa da; eta sozioekonomiarako 648 mila euro jartzen ziren 2018an eta 586 mila euro jarri dituzte orain.

15. grafikoa. Udalen euskara aurrekontuaren jarduera-eremuaren arabeko banaketa (%) (hiriburuak sartu gabe)




Iturria: Siadeco, 2022.

16. grafikoa. Udalen euskara aurrekontuaren jarduera-eremuaren araberako banaketak izandako bilakaera 2010-2022 (%) (hiriburuak sartu gabe) (1/2)



16. grafikoa. Udalen euskara aurrekontuaren jardura-eremuaren araberako banaketak izandako bilakaera 2010-2022 (%) (hiriburuak sartu gabe) (2/2)



Iturria: Siadeco.

19. taula. Hiriburuak ez diren 5 mila biztanlez gorako udalerrietako udalen euskara aurrekontuak, jarduera-eremuaren arabera (2010-2022)

Jarduera-eremua	Erakundea		2010	2012	2014	2016	2018	2020	2022
1. Familia bidezko transmisioa	Arabako Udalak		9.330	5.531	1.295	1.330	1.641	4.016	4.207
	Bizkaiko Udalak		348.691	531.634	486.903	343.510	556.431	518.098	684.523
	Gipuzkoako Udalak		481.109	221.114	234.893	230.397	331.329	244.218	325.341
	Guztira	€	839.130	758.279	723.091	575.237	889.401	766.332	1.014.071
		%	2,65	2,41	2,21	1,55	2,33	2,14	2,47
2. Irakaskuntza	Arabako Udalak		25.629	15.045	49.919	30.000	32.000	30.000	40.807
	Bizkaiko Udalak		664.135	861.700	945.432	1.137.864	1.007.514	916.695	1.049.928
	Gipuzkoako Udalak		763.016	818.386	873.026	912.666	954.358	1.082.133	1.387.484
	Guztira	€	1.452.780	1.695.131	1.868.377	2.080.530	1.993.872	2.028.828	2.478.219
		%	4,58	5,39	5,72	5,60	5,22	5,67	6,04
3. Euskalduntze-alfabetatzea	Arabako Udalak		223.072	237.405	95.036	261.488	189.290	250.163	271.579
	Bizkaiko Udalak		5.329.665	5.613.026	5.713.796	7.236.142	6.396.003	6.879.382	7.673.992
	Gipuzkoako Udalak		2.919.832	2.913.595	3.269.493	4.809.127	4.118.726	4.548.719	5.060.355
	Guztira	€	8.472.569	8.764.027	9.078.325	12.306.757	10.704.019	11.678.264	13.005.925
		%	26,71	27,85	27,79	33,10	28,01	32,63	31,71
4. Administrazioa	Arabako Udalak		29.125	30.144	107.400	149.033	157.594	155.067	156.882
	Bizkaiko Udalak		1.195.093	1.376.056	1.587.257	1.653.921	1.720.005	1.041.433	1.135.450
	Gipuzkoako Udalak		1.383.556	1.323.315	1.429.294	1.547.626	1.496.870	1.496.458	1.508.243
	Guztira	€	2.607.774	2.729.514	3.123.951	3.350.580	3.374.469	2.692.958	2.800.575
		%	8,22	8,67	9,56	9,01	8,83	7,52	6,83
5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak	Arabako Udalak		0	856	0	0	0	0	0
	Bizkaiko Udalak		70.569	46.292	19.207	16.309	18.047	27.576	36.074
	Gipuzkoako Udalak		149.194	85.556	72.072	37.610	48.780	45.743	41.916
	Guztira	€	219.763	132.704	91.279	53.919	66.827	73.319	77.990
		%	0,69	0,42	0,28	0,15	0,17	0,20	0,19
6. Sozioekonomia	Arabako Udalak		32.921	20.454	42.520	31.153	64.754	36.375	51.471
	Bizkaiko Udalak		323.981	304.845	229.127	246.144	208.612	216.040	207.012
	Gipuzkoako Udalak		530.796	418.027	385.783	384.788	374.278	300.078	327.936
	Guztira	€	887.698	743.326	657.430	662.085	647.644	552.493	586.419
		%	2,80	2,36	2,01	1,78	1,69	1,54	1,43
7. Aisia eta kirola	Arabako Udalak		116.354	97.960	125.710	208.499	221.953	101.534	168.673
	Bizkaiko Udalak		1.796.784	1.717.491	1.858.354	2.114.650	2.377.071	1.753.518	2.319.309
	Gipuzkoako Udalak		3.042.366	2.924.252	2.908.705	3.187.765	3.398.983	2.403.909	2.853.349
	Guztira	€	4.955.504	4.739.703	4.892.769	5.510.914	5.998.007	4.258.961	5.341.331
		%	15,62	15,06	14,98	14,82	15,70	11,90	13,02
8. Liburugintza	Arabako Udalak		2.014	3.151	4.942	707	1.386	1.135	775
	Bizkaiko Udalak		194.036	161.727	149.595	152.393	139.179	130.576	168.360
	Gipuzkoako Udalak		138.802	165.620	112.389	152.565	140.444	107.988	130.533
	Guztira	€	334.852	330.499	266.926	305.665	281.009	239.699	299.667
		%	1,06	1,05	0,82	0,82	0,74	0,67	0,73
9. Kulturgintza	Arabako Udalak		17.060	46.705	56.764	52.094	60.572	29.287	31.939
	Bizkaiko Udalak		941.455	1.190.201	765.453	928.871	1.268.700	1.075.303	1.575.381
	Gipuzkoako Udalak		986.779	1.025.770	1.056.111	1.080.970	1.073.105	631.201	813.692
	Guztira	€	1.945.294	2.262.676	1.878.328	2.061.935	2.402.377	1.735.791	2.421.013
		%	6,13	7,19	5,75	5,55	6,29	4,85	5,90
10. Publizitatea	Arabako Udalak		0	2.899	0	3.684	4.000	0	1.972
	Bizkaiko Udalak		6.181	1.624	23.233	50.645	56.639	65.962	35.533
	Gipuzkoako Udalak		22.251	20.720	39.466	31.593	63.516	38.302	56.020
	Guztira	€	28.432	25.243	62.699	85.922	124.155	104.264	93.525
		%	0,09	0,08	0,19	0,23	0,32	0,29	0,23

Jarduera-eremua	Erakundea	2010	2012	2014	2016	2018	2020	2022
11. Euskararen corpusa eta kalitatea	Arabako Udalak	5.852	12.064	0	34	2.000	2.000	0
	Bizkaiko Udalak	281.431	225.415	130.531	122.801	49.784	44.975	43.690
	Gipuzkoako Udalak	280.283	191.477	173.685	98.545	113.579	134.532	141.868
	Guztira	€ 567.566	428.956	304.216	221.380	165.363	181.507	185.557
	%	1,79	1,36	0,93	0,60	0,43	0,51	0,45
12. Hedabideak	Arabako Udalak	4.931	16.500	19.340	21.893	21.257	15.744	31.164
	Bizkaiko Udalak	499.768	433.299	433.905	496.623	486.802	480.068	401.292
	Gipuzkoako Udalak	1.717.253	1.712.223	1.911.961	1.737.639	1.734.343	1.771.102	1.893.382
	Guztira	€ 2.221.952	2.162.022	2.365.206	2.256.155	2.242.402	2.266.914	2.325.839
	%	7,00	6,87	7,24	6,07	5,87	6,33	5,67
13. Informazio, sentsibilizazio eta komunikazio ekintza orokorrak	Arabako Udalak	2.907	1.147	7.047	8.567	13.621	7.000	24.558
	Bizkaiko Udalak	48.530	187.530	227.956	236.300	503.589	454.640	404.791
	Gipuzkoako Udalak	53.324	65.336	149.769	263.564	427.223	493.819	687.578
	Guztira	€ 104.761	254.014	384.772	508.431	944.433	955.459	1.116.927
	%	0,33	0,81	1,18	1,37	2,47	2,67	2,72
14. Azterlan eta ptangintza orokorrak	Arabako Udalak	0	2.768	0	0	0	0	3.623
	Bizkaiko Udalak	6.971	53.072	36.314	16.041	20.642	21.553	68.758
	Gipuzkoako Udalak	62.137	37.271	67.405	90.491	184.506	87.596	167.070
	Guztira	€ 69.108	93.112	103.719	106.532	205.148	109.149	239.451
	%	0,22	0,30	0,32	0,29	0,54	0,30	0,58
15. Toki entitate eta mankomunitateentzako dirulaguntza orokorrak	Arabako Udalak	0	0	0	2.707	3.241	3.800	13.215
	Bizkaiko Udalak	96.493	58.652	101.780	206.694	272.769	353.637	449.943
	Gipuzkoako Udalak	696.263	154.653	347.304	361.725	399.802	392.220	435.615
	Guztira	€ 792.756	213.304	449.084	571.126	675.812	749.657	898.772
	%	2,50	0,68	1,37	1,54	1,77	2,09	2,19
16. Bestelako egitasmo eta dirulaguntzak	Arabako Udalak	19.828	12.022	10.315	36.054	41.790	32.018	38.224
	Bizkaiko Udalak	298.521	170.075	131.249	253.257	235.780	182.346	203.174
	Gipuzkoako Udalak	274.667	409.044	278.139	358.532	467.432	421.389	562.992
	Guztira	€ 593.016	591.141	419.703	647.843	745.002	635.753	804.390
	%	1,87	1,88	1,28	1,74	1,95	1,78	1,96
17. Erakundeko euskara arloaren egiturazko gastuak	Arabako Udalak	234.293	204.233	144.500	158.796	180.685	203.422	215.349
	Bizkaiko Udalak	2.189.528	2.214.387	2.672.177	2.407.533	2.963.397	2.736.616	2.947.397
	Gipuzkoako Udalak	3.208.312	3.122.038	3.176.532	3.309.840	3.608.911	3.819.840	4.156.354
	Guztira	€ 5.632.133	5.540.658	5.993.209	5.876.169	6.752.993	6.759.878	7.319.100
	%	17,75	17,61	18,35	15,80	17,67	18,89	17,85
EUSKARA SUSTATZEKO AURREKONTUA GUZTIRA	Arabako Udalak	723.318	708.885	664.789	966.040	995.785	871.562	1.054.438
	Bizkaiko Udalak	14.291.832	15.147.026	15.512.271	17.619.698	18.280.963	16.898.417	19.404.607
	Gipuzkoako Udalak	16.709.940	15.608.398	16.486.027	18.595.443	18.936.185	18.019.247	20.549.728
	Guztira	€ 31.725.088	31.464.309	32.663.084	37.181.180	38.212.933	35.789.226	41.008.773
	%	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

Iturria: Siadeco.

Udalek eremu bakoitzean jarritako aurrekontuaren bilakaera aztertzeko, biztanleko egindako inbertsioa hartu da kontuan. 2012koa izan zen udalek euskarara bideratutako aurrekonturik txikiena biztanleko (26,70 euro), eta altuagoa izan da 2022koa, 7,55 euro gehiago jarri dituzte biztanleko. Igoera bereziki bi eremutan nabaritu da: euskalduntze-alfabetatzera 3,42 euro gehiago bideratu dituzte udalek biztanleko, eta egiturazko gastuetara, aldiz, 1,41 euro gehiago. Beste bi eremutan, jaitsiera txikia baina nahiko jarraia –2020a da salbuespena– ari da izaten 2010etik hona: sozioekonomia arloan (0,76 euro biztanleko 2010ean, eta 0,49 euro biztanleko 2022an); eta euskararen corpusean eta kalitatean (0,48 eurotik 0,21 eurora).

20. taula. Udalek jarduera-eremu bakoitzera bideratutako biztanleko euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera, 2010-2022

Jarduera-eremua	2010	2012	2014	2016	2018	2020	2022
1. Familia bidezko transmisioa	0,72	0,64	0,61	0,49	0,75	0,64	0,85
2. Irakaskuntza	1,24	1,44	1,58	1,76	1,68	1,70	2,07
3. Euskalduntze-alfabetatzea	7,24	7,44	7,67	10,39	9,00	9,76	10,86
4. Administrazioa	2,23	2,32	2,64	2,83	2,84	2,25	2,34
5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak	0,19	0,11	0,08	0,05	0,06	0,06	0,07
6. Sozioekonomia	0,76	0,65	0,56	0,56	0,54	0,46	0,49
7. Aisia eta kirola	4,23	4,02	4,13	4,65	5,04	3,56	4,46
8. Liburugintza	0,29	0,28	0,23	0,26	0,24	0,20	0,25
9. Kulturgintza	1,66	1,92	1,59	1,74	2,02	1,45	2,02
10. Publizitatea	0,02	-	0,05	0,07	0,10	0,09	0,08
11. Euskararen corpusa eta kalitatea	0,48	0,36	0,26	0,19	0,14	0,15	0,15
12. Hedabideak	1,90	1,83	2,00	1,90	1,88	1,89	1,94
13. Informazio, sentsibilizazio eta komunikazio ekintza orokorrak	0,09	0,22	0,32	0,43	0,79	0,80	0,93
14. Azterlan eta plangintza orokorrak	0,06	0,08	0,09	0,09	0,17	0,09	0,20
15. Toki entitate eta mankomunitateentzako dirulaguntza orokorrak	0,68	0,18	0,38	0,48	0,57	0,63	0,75
16. Bestelako egitasmo eta dirulaguntzak	0,51	0,50	0,35	0,55	0,63	0,53	0,67
17. Euskara arloan egiturazko gastuak	4,81	4,70	5,06	4,96	5,68	5,65	6,11
GUZTIRA	27,10	26,70	27,58	31,38	32,12	29,91	34,25

Iturria: Siadeco.

4.3. Hiriburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen artean 10,2 milioi euroko aurrekontu likidatua izan dute 2022an. Sei eremutara bideratu dute aurrekontuaren % 81,1: euskara zerbitzuaren funtzionamendu gastuetara (% 17,0), aisia eta kirola (% 15,7), administrazioa bera euskalduntzera (% 15,1), kulturgintzara (% 12,3), irakaskuntzara (% 11,5) eta euskalduntze-alfabetatzera (% 9,5). Gainontzeko eremuek % 4,0 baino gutxiago hartzen dute.

Euskara arloen egiturazko gastuak. Egiturazko gastuetara joan da hiriburuen euskara aurrekontuaren % 17,0, hau da, 1,7 milioi euro. Bilboko Udalak izan du egiturazko gastu gehien (950 mila euro, 2022an), eta proportzioan ere hark bideratu du aurrekontuaren zatirik handiena egiturazko gastuetara: euskara aurrekontuaren % 35,7. Donostiak % 17,7, eta Gasteizek, aldiz, % 5,5.

Aisia eta kirola. 1,6 milioi euro bideratu dituzte hiriburuetakoko udalek aisia eta kirolean euskara bultzatzeko egitasmoetara. Tartean daude euskarazko ludotekak eta udalekuak, aisia eta kirola euskalduntzeko egitasmoak, eta arlo horretarako emandako dirulaguntzak. Gasteizko Udalak egiten du ekarpen handiena, bai dirutan (1,1 milioi euro), baita aurrekontuko ehunekoa ere —haien aurrekontuaren laurden hartzen du eremu honek—.

Administrazioa. Guztira 1,5 milioi euroko aurrekontu likidatua du esparru horrek, eta Donostiako Udalak du gasturik handiena —euskara aurrekontuaren % 29,1—. Multzo horretan daude, esate baterako, itzultzaileen pertsonal gastuak, barne erabilera-planen gastuak, euskara-gaitasuna hobetzeko liberatutako langileen ordezkapen gastuak, administrazio barrura begira lan egiten duten euskara teknikarien pertsonal gastuak...


Kulturgintza. Euskarazko kultura bultzatzeko —literatura ez beste arloak: antzerkia, musika, bertsolaritza...—, 1,2 milioi euro bideratu dituzte hiru hiriburuak 2022an. Horietatik, milioi bat pasatxo Gasteizko Udalari dagokio —haren aurrekontuaren ia laurden bat bideratu du arlo honetara—.

Irakaskuntza. 1,2 milioi euro jarri dituzte hiru hiriburuen artean hezkuntza arlora zuzendutako programa, baliabide eta dirulaguntzetarako. Kasu honetan ere, Gasteizko Udalak egin dio ekarpen kuantitatiborik handiena kopuru osoari (537 mila euro).

Euskalduntze-alfabetatzea. 969 mila euro jarri dituzte hiriburuak euskalduntze-alfabetatzea bultzatzeko. Dirulaguntzekin batera, tartean daude mintzapraktika egitasmoak, atzerritarrentzako materialak eta ikasmaterialak. Gasteizko Udalak jarri du diru gehien, 607 mila euro, aurrekontuaren % 13,5; Donostiakoak 343 mila euro. Bilboko Udalak, aldiz, 19 mila euro, aurrekontuaren % 0,7.

Gainerako udalekin alderatuta, hiriburuen euskara aurrekontuetan garrantzi handiagoa dute administrazioak, kulturgintzak eta irakaskuntzak. Aldiz, pisu txikiagoa dute: euskalduntze-alfabetatzeak, hiriburuetan ez dagoelako udal-euskaltegirik, eta hedabideek.

17. grafikoa. Hiriburuen 2022ko euskara aurrekontuaren jarduera-eremuaren araberako banaketa (%)



Iturria: Siadeco, 2022.

Bilakaera

Euskara aurrekontua igo egin da hiru hiriburuetan: Gasteizkoa hazi da gehien (% 28,0), baina baita Bilbokoa ere (% 25,4). Guztirako aurrekontua kontuan hartzen bada, igoera orokortua da eremu guztietan; bereziki irakaskuntza arlokoa da esanguratsuen: 2020an baino 660 mila euro jarri dituzte hezkuntza arloko egitasmoetarako (% 128,5 gehiago). Hain zuzen, 2020ko aurrekontuan COVID-19ak gehien kolpatu zuen esparrua izan zen. Hiru hiriburuetan egin du gora eremu horren zenbatekoak, baina Gasteizko Udalarena da gorakadarik handiena: 2020an 176 mila euroko aurrekontua izatetik 537 mila eurokoa izatera –baina ez du errekuperatu 2018an zeukan aurrekontua, 1,2 milioi euro–.

Gainerako arloetan ere badira igoerak, horietatik zazpitan 100 mila eurotik gorakoak: aisia eta kirola (+210 mila euro), kulturgintza (+157 mila euro), administrazioa (+154 mila euro), familia bidezko transmisioa (+149 mila euro), etab. Jaitsierak ez dira nabari, baina Gasteizek eta Donostiak egin dituzte zenbait esparrutan: Gasteizko aurrekontuan behera egin dute publizitateak (-% 14,7), corpusak eta kalitateak (-% 13,7), informazio, sensibilizazio eta komunikazio-ekintza orokorrak (-%13,3) eta liburugintzak (-% 11,1); eta Donostiako aurrekontutik, aldiz, egiturazko gastuek (-% 7,5) eta administrazioak (-% 2,9).

21. taula. Hiriburuetako udalen euskara aurrekontuak, jarduera-eremuaren arabera (2010-2022)

Jarduera-eremua	Erakundea		2010	2012	2014	2016	2018	2020	2022
1. Familia bidezko transmisioa	Gasteizko Udala		3.000	21.274	26.722	39.645	44.150	30.809	49.151
	Bilboko Udala		252.452	208.880	164.900	81.756	156.383	91.480	219.672
	Donostiako Udala		31.673	33.459	15.967	9.462	27.763	30.769	32.780
	Guztira	€	287.125	263.613	207.589	130.863	228.296	153.058	301.603
		%	3,18	3,45	2,40	1,43	2,26	1,84	2,96
2. Irakaskuntza	Gasteizko Udala		482.713	613.709	674.320	668.236	1.173.709	175.942	537.114
	Bilboko Udala		355.059	191.070	185.000	212.350	214.854	187.450	316.400
	Donostiako Udala		314.075	360.586	285.795	207.223	240.611	149.872	319.533
	Guztira	€	1.151.847	1.165.365	1.145.115	1.087.809	1.629.174	513.264	1.173.046
		%	12,75	15,27	13,26	11,86	16,09	6,18	11,50
Euskara ataletako bost langiletik bi baino gehiago dira funtzionarioak (% 43,9). Aldea dago erakunde esparru batetik bestera. Funtzionarioen ehunekorik handiena diputazioetan dago: ia lautik hiru dira (% 72,3). Hiriburuetan eta udaletan ere gehiengoa dira (% 53,2 eta % 50,3, hurrenez hurren), eta Eusko Jaurlaritzan ez dira herenera ere heltzen (% 29,8). Proporziorik handiena Eusko Jaurlaritzan dute bitarteko funtzionarioek (% 61,7), eta atzerago daude foru aldundietan (% 27,7) eta udaletan (% 23,7). Laboral finkoen ehunekoari dagokionez, udaletan da esanguratsuena (% 17,9), eta gainerakoetan apenas dagoen halako figurarik (Jaurlaritzan, % 6,3). Antzera gertatzen da aldi baterako langileekin: udaletan % 4,2 dira; Jaurlaritzan, % 6,3.

53. taula. Euskara zerbitzuetako enplegua, erakunde-mota eta kontratazio-egoeraren arabera (2022)

Lanpostua	Udalak		Hiriburuak		Foru aldundiak		Eusko Jaurlaritza		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Funtzionarioa	84,0	50,29	25,0	53,19	41,7	72,26	66,2	29,76	216,8	43,89
Bitarteko funtzionarioa	39,5	23,67	21,0	44,68	16,0	27,74	137,2	61,69	213,7	43,26
Aldi baterako langilea	7,0	4,16	0,0	0,00	0,0	0,00	5,0	2,25	12,0	2,42
Laboral finkoa	29,8	17,85	0,0	0,00	0,0	0,00	14,0	6,30	43,8	8,87
Besterik	6,7	4,02	1,0	2,13	0,0	0,00	0,0	0,00	7,7	1,56
GUZTIRA	166,9	100,00	47,0	100,00	57,7	100,00	222,3	100,00	493,9	100,00

Iturria: Siadeco, 2022.

Kontratazio egoeraren bilakaerari dagokionez, 2020tik 2022ra zertxobait behera egin du funtzionarioen kopuruak (-% 6,3), eta jaitiera handiagoa da 2012arekin alderatuta (-% 20,7). Jaitsi egin dira, baita ere, aldi baterako langileak (-% 35,1), laboral finkoak (-% 1,1) eta bestelako egoeran daudenak eta zehaztu gabekoak (-% 7,2). 2020tik 2022ra oso gutxi igo dira, berriz, bitarteko funtzionarioak (% 3,9).

54. taula. Euskara zerbitzuetako enpleguaren bilakaera (2012-2022), kontratazio-egoeraren arabera

Kontratazio egoera	2012	2014	2016	2018	2020	2022	2012-2022 bilakaera (%)
Funtzionarioa	273,4	278,5	223,0	242,5	231,5	216,8	-20,71
Bitarteko funtzionarioa	117,9	137,4	175,8	196,3	205,7	213,7	81,23
Aldi baterako langileak	29,7	24,4	22,0	17,6	18,5	12,0	-59,76
Laboral finkoak	46,7	52,0	47,7	48,6	44,3	43,8	-6,21
Besterik / zehaztu gabe	26,0	6,0	33,6	4,7	8,3	7,7	-78,00
GUZTIRA	493,7	498,3	502,1	509,7	508,3	493,9	-1,75

Iturria: Siadeco.

Euskara ataletako langileen lan-kategoria edo kidegoa

Euskara ataletako langileen % 44,6 A taldeko beharginak dira, goi-mailako kidegokoak. Ehuneko hori handiagoa da foru aldundietan (% 60,1) eta Eusko Jaurlaritzan (% 59,8). Udaletan, berriz, gehiago dira B taldekoak, erdi-mailako kidegokoak: % 51,7 hiriburuak ez diren udaletan, eta hiriburuetan, % 57,5. Erakunde guztietan nabarmen atzerago daude beste taldeak.

55. taula. Euskara zerbitzuetako enplegua, lan-kategoriaren eta erakunde-motaren arabera (2022)

Lanpostua	Udalak		Hiriburuak		Foru aldundiak		Eusko Jaurlaritza		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
A: goi-mailako kidegoa	42,7	25,56	10,0	21,28	34,7	60,12	132,9	59,78	220,2	44,59
B: erdi-mailako kidegoa	86,4	51,74	27,0	57,45	12,0	20,81	42,0	18,89	167,4	33,88
C: administrarien kidegoa	28,4	17,01	9,0	19,15	10,0	17,34	22,4	10,08	69,8	14,14
D: administrari laguntzaileen kidegoa	5,0	3,00	0,0	0,00	1,0	1,73	23,0	10,34	29,0	5,87
E: subalernoak	0,0	0,00	0,0	0,00	0,0	0,00	2,0	0,90	2,0	0,40
Besterik	2,3	1,35	1,0	2,13	0,0	0,00	0,0	0,00	3,3	0,66
Zehaztu gabe	2,3	1,35	0,0	0,00	0,0	0,00	0,0	0,00	2,3	0,46
GUZTIRA	166,9	100,00	47,0	100,00	57,7	100,00	222,3	100,00	493,9	100,00

Iturria: Siadeco, 2022.

Euskara ataletako langileak sexuaren ikuspegitik

Euskara ataletako langile gehienak, ia hirutik bi, emakumeak dira (% 62,5). Erakunde-esparru guztietan daukate gehiengoa emakumezkoak: hiriburuetan (% 72,3), udaletan (% 66,8), Eusko Jaurlaritzan (% 58,6 eta foru aldundietan (% 57,2).

56. taula. Enplegua, sexuaren arabera, erakunde-motaren arabera (2022)

Lanpostua	Udalak		Hiriburuak		Foru aldundiak		Eusko Jaurlaritza		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emakumezkoak	111,5	66,79	34,0	72,34	33,0	57,22	130,2	58,55	308,7	62,49
Gizonezkoak	55,4	33,21	13,0	27,66	24,7	42,78	92,2	41,45	185,3	37,51
Guztira	166,9	100,00	47,0	100,00	57,7	100,00	222,3	100,00	493,9	100,00

Iturria: Siadeco, 2022.

Sexuaren araberako datuak langileen kategoriaran eramanda, aldeak ageri dira: proportzioan, askoz ere gizon gehiago dago A kategorian, goi-mailakoan (gizonezkoen % 55,1 eta emakumezkoen % 38,3). B kategorian, proportzioa oso antzekoa da: % 34,5 gizonezkoa, eta % 33,5, emakumezkoa. Gainontzeko kategoriatan (C, D eta E), aldiz, emakumezkoen pisua handiagoa da.

57. taula. Lan-kategoria, sexuaren arabera (2022)

Lan-kategoria	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
A: goi-mailako kidegoa	118,11	38,27	102,13	55,12	220,2	44,59
B: erdi-mailako kidegoa	103,42	33,51	63,94	34,51	167,4	33,88
C: administrarien kidegoa	60,12	19,48	9,70	5,24	69,8	14,14
D: administrari laguntzaileen kidegoa	22,00	7,13	7,00	3,78	29,0	5,87
E: subalternoak	2,00	0,65	0,00	0,00	2,0	0,40
Besterik	1,25	0,40	2,00	1,08	3,3	0,66
Zehaztu gabe	1,75	0,57	0,50	0,27	2,3	0,46
Guztira	308,65	100,00	185,27	100,00	493,9	100,00

Iturria: Siadeco, 2022.

7

ONDORIOAK ETA EMAITZA NAGUSIAK



7.1. Ikerlanaren ezaugarriak

Metodologia bera erabilia, EAEko herri-erakundeen 2022ko euskara aurrekontuen informazioa jaso eta aurreko edizioetako emaitzekin alderatu da.

EAEko herri-administrazioek zenbat diru jartzen duten euskara sustatzeko eta kopuru horrek zer bilakaera izan duen aztertzea izan da ikerlanaren helburua. 2022ko aurrekontuen datuak jaso dira ikerlan honetarako, eta azken 12 urteetako bilakaera aztertu da, 2010etik 2022ra. Bi urtean behin egiten da estatistika, metodologia bera erabilia. Eusko Jaurlaritzaren, hiru aldundien eta 5 mila biztanlez gorako udalerrietako udal guztien datuekin osatu da estatistika: denera, 73 udal, EAE osoko biztanleriaren % 90,0.

7.2. Euskara aurrekontuen kopuru orokorrak eta bilakaera

7.2.1. Udalak

Udalen euskara aurrekontuak nabarmen igo dira, pandemia aurreko kopuruen gainetik kokatuz.

Hiriburuak aparte utzita, 5 mila biztanlez gorako EAEko 70 udalek, 41,0 milioi euro erabili dituzte 2022an euskara sustatzeko. Kopuru hori, 2020koa (35,8 milioi euro) baino % 14,6 handiagoa da, 2010-2022 epealdiko handiena. 2020tik 2022ra, Arabako udalen batez besteko igoera (% 21,0), Bizkaiko udalena (% 14,8) eta Gipuzkoako udalena (% 14,0) baino handiagoa izan da.

Pandemia aurrekoa baino txikiagoa da, hala ere, euskara aurrekontuaren ehunekoak.

Udalen aurrekontu osoaren (1.729 milioi euro) % 2,37 erabili da euskararako 2022an, % 2,39 erabili zen 2020an, eta % 2,63, 2018an. 2018tik 2020ra, udalen aurrekontu orokorrak igo egin ziren, eta euskararenak, aldiz, jaitsi; eta 2020tik 2022ra, euskara aurrekontuak (% 14,6) zertxobait gehiago igo dira udalen aurrekontu orokorrak (% 15,7) baino. 2020tik 2022ra, euskara aurrekontuaren ehunekoak 4 hamarren igo da Arabako udaletan, mantendu edo zertxobait igo da Gipuzkoan, eta zertxobait jaitsi da Bizkaian. Batez beste, % 2,85 da Gipuzkoako udaletan euskara aurrekontuaren ehunekoak; % 2,25, Araban; eta % 2,02, Bizkaian.

Lehendik biztanleko ratio altuenak zituzten udaletan igo dira, berriz ere, gehien euskara aurrekontuak: tamainaz, 10-20 mila biztanle artean dituzten udaletan, eta 3. gune soziolinguistikokoan dauden udalerrietan.

Biztanleko euskara aurrekontuan alde handia dago udalerraren tamainaren arabera. Aurrekontu oparoena 10-20 mila biztanleko herriek dute, alde handiz: 43,43 euro, 2020an baino 5,7 euro gehiago biztanleko. 5-10 mila biztanleko udalerrien aurrekontua 31,13 eurokoa da, 2020an baino 3,0 euro gehiago; eta 20 mila biztanle baino gehiagokoena (hiriburuak sartu gabe), 30,1 eurokoa, 2020an baino 3,9 euro gehiago.

Eta euskararen biztanleko aurrekontua asko aldatzen da udalerrira kokatzen den eremu soziolinguistikokoaren arabera ere. Udalerrira erdaldunenetan dute zenbatekorik apalena, 20,8 euro; eta euskaldunak % 50 baino gutxiago diren herrietan, 21 euro inguru biztanleko. Hortik gora, aurrekontua handiagoa da: euskaldunak % 50-70 direnetan, 43,5 euro; eta 4. gune soziolinguistikokoan (euskaldunak % 71tik gora), 39,6 euro.

7.2.2. Hiriburuak

Nabarmen igo dira hiru hiriburuetakoko udalen euskara aurrekontuak, aurrekontu orokorrak baino gehiago.

Gasteizko Udalaren 2022ko euskara aurrekontua 4,5 milioi eurokoa da. 2018tik 2020ra asko jaitsi zen (% 28,1) eta 2020tik 2022ra, asko igo da (% 28,0), aurrekontu orokorra (% 9,6) baino gehiago. Horrela, euskarara bideratutako aurrekontuak % 1,13ko pisua du; % 1etik gorako pisua duen hiriburu bakarra da.

Bilboko Udalaren euskara aurrekontua, 2,7 milioi eurokoa izan da 2022an, eta igoera handia izan zuen, baita ere, 2020tik 2022ra (% 25,4). Aurrekontu osoarekiko euskararen duen pisua baxuagoa da: % 0,43koa.

Donostiako Udalak, 3,0 milioi euroko aurrekontua izan du 2022an, % 14ko igoera izan du diote 2020tik, eta ondorioz, % 0,99ko pisua du erakundearen aurrekontu osoarekiko.

7.2.3. Aldundiak

Azken urteetan hiru aldundien euskara aurrekontuek izandako bilakaeran aldeak daude.

Arabako Foru Aldundiak 2022an 2,6 milioi euroko euskara aurrekontua du eta pandemia garaian 2018tik 2020ra jaitsitakoa (% 13,8) baino gehiago igo da 2020tik 2022ra (% 24,4). Erakundearen aurrekontu osoa (% 10,7) baino gehiago da hori. Euskarara bideratutako zenbatekoaren pisua, % 0,46koa izan da 2022an.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2022ko euskara aurrekontua, 9,6 milioi eurokoa da; 2016tik aurrera, beti igoera izan du, baita 2020an ere, eta % 6,8ko igoera 2020tik 2022ra. 2022an, euskararen aurrekontu osoarekiko pisua % 0,45ekoa izan da, 2020an baino baxuagoa, aurrekontu orokorra % 34,1 igo delako.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2022ko euskara aurrekontua 7,5 milioi eurokoa da, 2020koa baino zertxobait baxuagoa (% 1,4ko jaitsiera, baina 2018tik 2020ra asko igo zen (% 14,6). Aldundietan, euskarara bideratutako aurrekontuaren ehunekorik altuena Gipuzkoakoak du, % 0,76koa.

7.2.4. Eusko Jaurlaritza

Azken edizioetako igoera errepikatu egin da 2022an ere.

Eusko Jaurlaritzaren sail eta bere erakunde autonomo guztien euskara aurrekontu kontsolidatuaren azken 12 urteetako bilakaera aztertuta, bi urteetan jaitsierak izan ziren, zehazki 2012an eta 2016an, eta 2018tik aurrera, azken hiru edizioetako euskara aurrekontuen bilakaera positiboa izan da: 94,4 milioi euro, 2018an; 98,4 milioi euro, 2020an; eta 104,1 milioi euro, 2022an. 2020tik 2022ra, euskara aurrekontua % 5,7 igo da, erakunde osoarena (% 16,5) baino gutxiago, eta euskararen ehunekoa % 0,76an geratu da.

7.2.5. Herri-erakunde guztien aurrekontuen batura eta aurrekontu kontsolidatua

Euskara arlorako kudeatutako aurrekontuak igo egin dira erakunde-esparru guztietan: hiriburuetan, aurrekontu orokorra baino gehiago; udaletan, ia aurrekontu orokorraren parean; eta aldundietan eta Jaurlaritzan, aurrekontu orokorra baino gutxiago.

Udalek, hiriburuek, aldundiek eta Jaurlaritzak, erakunde horien guztien artean kudeatutako urteko euskara aurrekontuaren batura 175,0 milioi eurokoa izan da 2022an, 2020an baino ia 13,8 milioi euro gehiago, % 8,5eko igoera eta 2010-2022 epealdiko altuena. Erakundeen aurrekontuak gehiago igo dira, hala ere, bai 2020tik 2022ra (% 17,5), baita azken 10 urteak hartuta ere, 2012tik 2022ra: euskararenak % 20,6 eta aurrekontu orokorrak % 32,8.

2012tik 2022ra, azken 10 urte horiek hartuta, badaude aldeak erakunde-motaren arabera: udaletan, euskara aurrekontua gehiago hazi da (% 30,3), aurrekontu orokorra baino (% 24,8). Hiriburuetan ere euskarak pisua irabazi du, euskarako baliabideak gehiago ugaritu baitira (% 33,7), aurrekontu orokorra baino gehiago (% 26,2). Aldundietan, aurrekontu orokorrak (% 35,3) baino gutxiago igo dira euskarakoak (% 13,0) eta Jaurlaritzan ere berdin gertatu da: 2022ko zifrak 2012koekin alderatuta, aurrekontu orokorrean % 33,9ko jauzia gertatu da eta euskarakoetan % 17,4koa.

Eusko Jaurlaritzak aldundi eta udaletara, eta aldundiek udaletara egindako euskara arloko transferentziak kontuan hartuta, herri-erakunde guztien euskara aurrekontu kontsolidatua kalkulatu da, ia 172,5 milioi euro.

Azterketa honetako erakunde guztien artean kudeatutako euskara aurrekontuaren batura (175.055.597 euro) baino 2,3 milioi baxuagoa da EAEko herri-erakunde guztien aurrekontu kontsolidatua, zehazki 172.531.356 eurokoa. Eta kopuru horrek adierazten du egiazki zenbat diru bideratzen den EAE mailan, euskara sustatzeko programak eta

baliabideak finantzatzeko. Kontsolidazioa egiteko, erakunde guztien euskara aurrekontuak batu aurretik, kendu egin dira erakunde-arteako transferentziak, modu honetara: udalen aurrekontutik, udalek aldundietatik euskararako jasotako dirulaguntzen 783 mila euroko kopurua eta udal bakar batek Jaurlaritzatik jasotako 15 mila euroko dirulaguntza kendu dira; hiriburuen aurrekontutik, aldundietatik jasotako dirulaguntzen zenbatekoa kendu da, 99,6 mila eurokoa; eta aldundien aurrekontutik, euskarazko hedabideen proiektuak finantzatzeko Jaurlaritzatik jasotakoa murriztu da, zehazki 1,6 milioi euro.

EAE mailako euskara aurrekontu kontsolidatua, % 13 jaitsi zen 2012an, 2008an hasitako finantza krisiak eraginda; ondorengo urte guztietan igo egin da, 2022an gehien (% 8,7), eta 2022ko kopurua, inoizko altuena da (172.531.356 euro).

Kontsolidazioa egin ondorengo euskara aurrekontuen 2022ko igoera ere handia izan da, bereziki hiriburuetan (% 22,9) eta udaletan (% 14,8); eta txikiagoa aldundietan (% 6,7) eta Eusko Jaurlaritzan (% 5,7). Azken 12 urteak hartuta, 2010etik 2022ra, Eusko Jaurlaritzan izan ezik, beste erakunde guztietan, 2022koak dira kontsolidatutako inoizko euskara aurrekonturik handienak.

Udal eta hiriburuen ekarpena 2012an 35,7 milioi izatetik, 2022an 50,4 milioi izatera pasa da.

Eusko Jaurlaritzatik eta aldunditik jasotako euskara arloko transferentziak kontuan hartu gabe, udalek eta hiriburuak, hurrenez hurren, 28,4 eta 7,2 milioiko ekarpena egin zuten euskara sustatzeko 2012an. Orduetik aurrera, pandemiaren urtean izan ezik, beste urte guztietan igo egin dituzte ekarpenak, 2022an, udaletakoa 40,2 milioikoa eta hiriburuetakoa 10,1 milioikoa izateraino. EAEko euskara aurrekontu kontsolidatuaren % 25,1 zegokien 2012an eta % 29,1, 2022an.

Hiru aldundien euskara aurrekontu kontsolidatuaren bilakaerari erreparatuta, igo egin da baita ere –2012an 17,6 milioi izatetik 2022an 18,1 milioi izatera–, baina igoera txikiagoa izan da eta EAE osoko euskara aurrekontu kontsolidaturekiko dagokien pisuak behera egin du ia 2 puntu, % 12,4tik % 10,5era.

Eta Jaurlaritzaren bilakaera, tartean kokatzen da: 2012an 88,6 milioikoa izan zen, eta 2022an 104,1 milioi izan da; azken 10 urteetan % 17,4ko igoera izan du. EAE osoko aurrekontu kontsolidatuarekiko ekarpenean pisua galdu du, 2012an % 62,5 izatetik 2022an % 60,3 izatera.

7.3. Jarduera-eremuen araberako aurrekontuak eta bilakaera

7.3.1. Udalak

Udalen euskara aurrekontutik % 87,0 (41,0 milioiko aurrekontutik 35,7), zazpi jarduera-eremu hauetarako erabiltzen da: euskaltegien funtzionamendu gastuetarako eta euskara ikastaroetarako (% 31,7), udaleko euskara arloaren pertsonal eta funtzionamendu gastuak ordaintzeko (% 17,9), aisia eta kirolean euskara sustatzeko (% 13,0), administrazioa bera euskalduntzeko (% 6,8), euskarazko kultura sustatzeko (% 5,9), irakaskuntza arloan eragiteko programetarako (% 6,0) eta euskarazko hedabideak diruz laguntzeko (% 5,7).

Gainerako 10 esparru hauetara, euskara aurrekontuaren askoz ere zati txikiagoa bideratzen dute udalak: informazio eta sentiberatze ekintzak (% 2,7), familia bidezko transmisioa (% 2,5), tokiko entitateei dirulaguntza orokorrak (% 2,2), bestelako dirulaguntzak (% 2,0), lan-mundua (% 1,4), liburugintza (% 0,7), ikerketa orokorrak (% 0,6), euskararen corpusa eta kalitatea (% 0,5), IKTak (% 0,2) eta publizitatea (% 0,2).

Arabako udaletan, euskara aurrekontuaren pisu nabarmen handiagoa hartzen duen eremua da aisia eta kirola. Bizkaikoetan, euskalduntze-alfabetatzea eta kulturgintza; eta azkenik, Gipuzkoakoetan, hedabideetarako ipintzen da aurrekontuaren zati handiago bat.

2020tik 2022ra, udalen euskara aurrekontua guztira igotakoaren (5,2 milioi euro) % 80, bost eremu hauetako aurrekontuak gehiago igotzeko erabili da: euskalduntze-alfabetatze arlorako (% 25,4), aisia eta kirolerako (% 20,7), kulturgintzarako (% 13,1), udaleko euskara arloaren funtzionamendu gastuetarako (% 10,7) eta irakaskuntzarako (% 8,6).

Eta azken 12 urteak hartuta ere, 2010etik 2022ra, oro har, lehendik aurrekonturik altuena duten esparruetara bideratu da igoeraren zatirik handiena. 2010-2022 epealdian, aurrekontu osoarekiko jarduera-eremu bakoitzak duen pisuan, igoerarik handiena izan duena, euskalduntze-alfabetatzea izan da; 5 puntu egin du gora, 2010ean udalen euskara aurrekontuaren % 26,7 izatetik, 2022an %31,7 izatera pasa baita.

7.3.2. Hiriburuak

Hiru hiriburuen euskara aurrekontuak jarduera-eremuaren arabera nola banatzen diren, sei eremu hauek hartzen dute aurrekontuaren % 81,1: euskara zerbitzuaren funtzionamendu gastuek (% 17,0), aisia eta kirolak (% 15,7), administrazioa bera euskalduntzeak (% 15,1), kulturgintzak (% 12,3), irakaskuntzak (% 11,5) eta euskalduntze-alfabetatzeak (% 9,5). Hala ere, aldeak daude hiru hiriburuen artean.

Gasteizko Udaleko aurrekontuan pisu handiagoa duten eremuak dira: aisia eta kirola (% 24,3) eta kulturgintza (% 23,4). Bilboko Udalean, euskara zerbitzuaren funtzionamendu gastuen pisua handiagoa da (% 35,7) eta Donostiako Udalean, udaleko erabilera planaren (% 29,9) eta euskararen inguruko informazio- eta sentsibilizazio-ekintzek (% 7,6) dute pisu nabarmenagoa.

Gainerako udalekin alderatuta, hiriburuetan oro har pisu handiagoa duten eremuak dira: administrazioa, kulturgintza eta irakaskuntza. Eta txikiagoa dutenak: euskalduntze-alfabetatzea, hiriburuetan ez dagoelako udal-euskaltegirik, eta hedabideak.

7.3.3. Aldundiak

Aldeak daude aldundien artean ere baina hiruen datuak hartuta, aurrekontuaren erdia baino gehiago (% 54,0) hiru eremu hauek hartzen dute: hedabideek (% 25,4), administrazio beraren euskalduntzeak (% 14,7) eta euskara arloaren funtzionamendu gastuek (% 14,0).

Arabako Foru Aldundian, euskara aurrekontu osoarekiko pisu handiagoa dute administrazioak (% 56,3), toki entitate, mankomunitate eta kuadrillei emandako dirulaguntzek (% 10,6), eta euskalduntze-alfabetatzeak (% 5,3). Bizkaiko Foru Aldundian, aldiz, euskararen Corpusak (% 6,9) eta IKTek (% 14,8). Eta azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundian, oso modu nabarmenean, hedabideek (% 43,2) eta bestelako egitasmo eta dirulaguntzek (% 13,1).

7.3.4. Eusko Jaurlaritza

Euskalduntze-alfabetatzeak du pisurik handiena, nabarmen, Jaurlaritzaren euskara aurrekontuan, % 43,5 (45,2 milioi euro) eta irakaskuntza-sistemaren euskalduntzeak gero, % 18,1 (18,8 milioi euro). Eta beste hiru eremu hauekin, aurrekontuaren % 90,0 osatzen da: administrazioaren beraren euskalduntzea (% 11,2, 11,5 milioi), hedabideak (% 8,9, 9,3 milioi) eta euskara-atalen funtzionamendu gastuak (% 8,4, 8,7 milioi).

Euskalduntze-alfabetatzeko 45,2 milioi euroak, HABEren, euskaltegien eta euskara ikastaroen finantzaketara bideratzen direnak dira, baina administrazio bertako langileen euskalduntzea sartu gabe. Horiek 4,0 milioi igo dira 2020tik 2022ra, euskara ikastaroetarako dirulaguntzak igo direlako.

Irakaskuntza-sistema euskalduntzeko Eusko Jaurlaritzaren 2022ko aurrekontua, 18,8 milioi eurokoa da, baina azken urteetan jaitsiera izan du.

Administrazioa bera euskalduntzeko, guztira 11,5 milioi euro bideratzen ditu Jaurlaritzak, zertxobait igo da 2018tik 2022ra, eta kopuru horrek biltzen ditu, administrazioko langileen euskalduntzea finantzatzeko HABEren bitartez kudeatutako aurrekontua, IVAPeko itzulpen-zerbitzuaren gastuak eta Jaurlaritzako sailtako eta erakunde autonomoetako euskara-planen gastuak.

Hedabideetarako, 9,3 milioi ipintzen ditu Jaurlaritzak, 2022an 2020an baino 503 mila euro gehiago, baina igoera handiena, 2018tik 2020ra dago, 3,4 milioi gehiago.

Euskara arloen edo zerbitzuen funtzionamendu gastuak 8,7 milioi dira.

1 eta 3 milioi arteko aurrekontua bideratzen da beste eremu hauetarako: lan-mundua euskalduntzeko (2,2 milioi), Corpuserako (1,4 milioi) eta bestelako egitasmo eta dirulaguntzetarako (2,6 milioi). Gainerako eremuen aurrekontuak baxuagoak dira, milioi batetik beherakoak.

2020tik 2022ra guztira gehitutako aurrekontuaren (5,6 milioi) zati handiena (% 71) euskalduntze-alfabetatze alorrera bideratu du, ia 4 milioi gehiago.

Jaitsiera handiena, irakaskuntzara (792 mila euro) eta IKTetara (647 mila euro) bideratutako gastuetan izan da. Gainerako ia eremu guztietako aurrekontuak igo egin dira, eta gehien igotakoa, euskalduntze-alfabetatzea izan da, 2020an 41,3 milioi izatetik, 2022an 45,2 milioi izatera.

7.3.5. Guztira

EAE osoa hartuta, euskalduntze-alfabetatzera, hedabideetara eta aisialdira bideratutako aurrekontuak sendotu egin dira, aldiz, lan-eremuan eta familia bidezko transmisioan ez da jautsirik egin.

Jaurlaritzak eta udalek ipinitako diruarekin, 2020tik 2022ra, 5,1 milioi igo da euskalduntze-alfabetatzearen EAEko aurrekontua –2022an 59,4 milioi euroko aurrekontua izan du –, eta ia 16,7 milioi azken 12 urteetan (2010etik 2022ra).

Hedabideetan, 2018tik 2020ra handitu zen batez ere aurrekontua, 5,0 milioi, eta 2022an ere igo egin da, 1,3 milioi, 16,8 milioi euro izatera iritsiz. Jaurlaritzak ipintzen ditu 9,3 milioi, aldundiek 3,7 milioi (Jaurlaritzatik jasotako 1,6 milioi kenduta) eta udalek (hiriburuak barne), 2,5 milioi.

Irakaskuntzan, Jaurlaritzaren 2022ko ekarpena 18,8 milioi eurokoa izan da, baina jaitsiz doa; aldiz, udalak gero eta gehiago ari dira jartzen, 2022an, 3,6 milioi (hiriburuak barne).

Aisialdia eta kirolean euskara sustatzera bideratutako egitasmoak ia erabat udaletatik bideratzen dira: 7,4 milioiko aurrekontua izan dute 2022an (hiriburuak barne), 2020an baino 1,4 milioi euro gehiago. Edonola ere kontuan hartu behar da aurreko edizioan izandako jaitsiera, 2018tik 2020ra, pandemiaren eraginez programa asko bertan behera geratu ziren eta berreskuratu egin dira 2022an. Eta kulturgintzarako ere urtean 5,6 milioi bideratzen dira, nagusiki, udalen ekarpenarekin.

Eremu sozio-ekonomikoan eragiteko egitasmo eta dirulaguntzen EAE osoko aurrekontuak baxuagoak dira, 3,6 milioi 2022an, eta azken 12 urteetako bilakaeran ez da igoera nabarmenik izan, 3 eta 4 milioi artean dauden kopuruak dira. Jaurlaritzak 2,2 milioi euroko ekarpena egiten du; udalek eta aldundiek, gainerakoa (1,4 milioi).

Eta udalerrri mailako euskara biziberritzeko plangintza gehienetan lehentasunezko erronka gisa jasotzen bada ere, familia bidezko transmisiora bideratutako egitasmoen aurrekontuak baxuak dira, 1,4 milioi baino ez 2022an, ia denak udalek jarriak.

7.4. Herri-administrazioen euskararako dirulaguntzak

7.4.1. Udalak

Udalen euskararako dirulaguntzak nabarmen igo dira, batez ere, Gipuzkoako udaletan eta honako alorretan: euskalduntze-alfabetatzea, irakaskuntza, hedabideak eta aisia eta kirola.

Arabako 5.000 biztanlez gorako herriek biztanleko 9,81 euro eman dituzte euskara arloko dirulaguntzetan; Bizkaikoek, 12,91 euro; eta Gipuzkoakoek, 19,02 euro. Lagundutako esparruei dagokienez, euskalduntze-alfabetatzea ageri da lehen tokian, zenbateko osoaren bi herenekin (% 66,7) —zatirik handiena euskaltegietako laguntzei dagokie—, eta hedabideak, ondoren (% 12,0).

Bilakaerari erreparatuta, 5.000 biztanlez gorako udalen euskararako dirulaguntzak areagotu egin dira 2020tik 2022ra: %13,0 hazi da dirulaguntzen zenbatekoa, 2,1 milioi gehiago, eta horietatik 1,5 milioi, Gipuzkoan. Araba eta Bizkaiko udaletan ere izan da igoera 2020tik 2022ra. Azken 10 urteak hartuta, Arabako udalen dirulaguntzak 215 milatik 330 milara igo dira, Bizkaiko udalenak 6,5 milioitik 8,9 milioira, eta Gipuzkoan, 5,8 milioitik 9,0 milioira. Laguntzak handitutako esparru nagusia euskalduntze-alfabetatzea da, 2012an baino 4,4 milioi gehiago 2022an.

7.4.2. Hiriburuak

Gasteizko Udalaren eta Bilboko Udalaren dirulaguntzak gehitu dira gehien, pandemia aurreko kopuruak gainditzeraino.

Gasteizko Udalean (400 milako igoera) eta Bilboko Udalean (305 milako igoera) igo dira batez ere, euskarako dirulaguntzak eta hiru hiriburu bizi biztanleko ratioak berdindu egin dira. Gasteizko Udalak, guztira emandako 849 mila euroetatik zatirik handienak, euskalduntze-alfabetatzea (296 mila) eta irakaskuntza (231 mila) eremuetakoak dira. Bilboko Udalaren dirulaguntzak guztira 1,2 milioi dira eta esparru gehiagotara zabaltzen dira. Donostiako Udalak, 605 mila euro erabili zituen guztira 2022an, erdia baino gehiago euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko (336 mila).

7.4.3. Aldundiak

Aldeak daude aldundien azken bi urteetako dirulaguntzen bilakaeran: Arabakoak mantendu, Gipuzkoakoak jaitsi eta Bizkaikoak nabarmen igo.

12,8 milioi euro kudeatu dituzte aldundiek dirulaguntzetan. Biztanleko ratioetan, hau da emaitza: Gipuzkoako Foru Aldundiak, 7,90 euro; Bizkaikoak, 5,44 euro; eta Arabakoak, 2,82 euro.

- Arabako Foru Aldundia (0,9 milioi euro). Honako bost arlo hauek jaso dute dirulaguntzarik handiena: toki entitate eta mankomunitateen egitasmoek (280 mila euro), hedabideak (203 mila), kulturgintza (168 mila), euskalduntze-alfabetatzea (140 mila) eta corpus-plangintza (100 mila).
- Bizkaiko Foru Aldundia (6,2 milioi euro,). 403 mila igo da 2020tik eta zazpi hauek dute zenbatekorik handiena: hedabideak (1,5 milioi euro), IKTek (1,4 milioi euro), toki entitateentzako laguntzek (726 mila euro), kulturgintzakoek (723 mila), corpus-plangintzakoek (665 mila), eremu sozioekonomiko pribatura bideratutakoek (397 mila) eta aisia eta kirolaren eremukoek (235 mila).
- Gipuzkoako Foru Aldundia (5,7 milioi euro). 195 mila jaitsi da 2020tik, kulturgintza eta corpus-plangintzako jaitsierek eraginda. Laguntza handienak arlo hauetara bideratzen dira: hedabideak (3,3 milioi), toki entitateentzako laguntzak (395 mila), IKTak (379 mila), corpora (321 mila) eta bestelako egitasmoak (992 mila).

7.4.4. Eusko Jaurlaritzaren

2018an 52,5 milioi eta 2022an 62,6 milioi, 4 urtetan 10,1 milioiko igoera, eta handiena, azken bi urteetan (6,1 milioiko igoera).

Dirulaguntzetarako aurrekontu likidatua 62,6 milioi eurokoa izan da 2022an, 2020an baino 6,1 milioi altuagoa. Igoera, batez ere, euskalduntze-alfabetatzeko igoerak eragindakoa da, 4,0 milioikoa; igoera handiena izandako gainerako esparruak dira: irakaskuntza (753 milako igoera, 2020an pandemiarengatik Irale programa bertan behera geratu zelako), hedabideak (504 milako igoera) eta bestelako dirulaguntza eta hitzarmenak (761 milako igoera). Esparruei jarraiki, Jaurlaritzaren euskararako dirulaguntzen zerrenda hurrengoa da, kopuru altuenetik hasita: euskalduntze-alfabetatzea (40,2 milioi), hedabideak (9,3 milioi), irakaskuntza (4,0 milioi), bestelako egitasmoak (3,5 milioi), lan-mundua (1,8 milioi), corpora (1,4 milioi), liburugintza (791 mila), kulturgintza (770 mila), IKTak (395 mila), toki entitate eta mankomunitateak (201 mila), aisia eta kirola (196 mila) eta administrazioa (39 mila).

7.4.5. EAE

2018tik 2022ra, 4 urtetan, Jaurlaritzaren 10,1 milioiko igoerari, beste herri-erakunde guztien igoerak gehituta, guztira 14,8 milioiko igoera izan dute euskararako dirulaguntzek, eta handiena, azken bi urteetan (9,3 milioiko igoera).

Euskararen esparruko dirulaguntzetara 96,3 milioi euro bideratu dituzte EAeko erakundeek 2022an, euskara aurrekontuaren erdia pasatxo da hori (% 55,0), eta biztanle bakoitzeko, 44,04 euro. Zenbatekoaren % 64,7 Jaurlaritzak jarri du; udalek, % 19,0; aldundiek, % 13,3; eta hiriburuek, % 2,7. Kopuru horiek kontsolidatu gabeko aurrekontuekin kalkulaturakoak dira; datu kontsolidatuekin, hau da, erakunde publikoen arteko transferentziak kenduta, 94,0 milioi da EAeko herri-administrazioek kanpoko beste entitateei ordaindutako dirulaguntzen zenbateko osoa.

2012-2022 epealdi osoko dirulaguntzen bilakaera aztertuta, 2022ko zenbatekoa da epealdi osoko handiena: 96,3 milioi euro 2022an, 2020an baino % 10,6 gehiago da hori (9,3 milioi gehiago), eta 2012an baino % 25,0 gehiago (19,3 milioi gehiago). 2020tik 2022rako 9,3 milioiko igoeratik 6,1 milioi Jaurlaritzakoak dira, 2,9 udalenak (hiriburuak barne) eta 233 mila, aldundienak.

7.5. Giza baliabideak

EAEko erakunde publikoetako euskara zerbitzuetan zuzeneko 500 enplegatu inguru daude eta azken 10 urteetako gorabeherak txikiak izan dira.

EAEko herri-administrazioen euskara zerbitzuetan eta arloetan zuzeneko 494 enplegatu daude; urte eta lanaldi osora kalkulatu da kopuru hori. 2022ko enplegua honela banatzen da erakunde-motaren arabera: Eusko Jaurlaritzan, 222; udaletan, 167; foru aldundietan, 58; eta hiriburuetan, 47.

Herrialde batetik bestera alde handia dago lanpostu-kopuruan.

Biztanleko ratioak honako hauek dira: Gipuzkoan, euskara langile bat dago 5.424 biztanleko; Araban, 10.270eko; eta Bizkaian, 10.620eko.

Emakume gehiago dago euskara zerbitzuetan, baina proportzioan, gizonezko gehiago dago goi mailako kidegoko lanpostuetan.

Euskara lanpostuetan emakumeak dira gehienak (% 62,5) eta aldea handitu egin da 2020tik (% 58,2). Nolanahi ere, proportzioan, gizonezko gehiago dago goi mailako kidegoan: gizonezkoen % 55,1 daude A mailan, eta emakumezkoen % 38,3.

8

ERANSKINAK



8.1. EAEko 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalen aurrekontu propio likidatuaren eta euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera (2002-2022)

Erakunde Kodea	Erakundea	Urtea	Erakundearen aurrekontua		Euskara aurrekontua		Euskara aurrekontuaren portzentaje erlatiboa (%)	Erakundearen aurrekontua biztanleko (€)	Euskara aurrekontua biztanleko (€)
			€	Bilakaera %	€	Bilakaera %			
1002	Amurrioko Udala	2002	16.815.801,00		118.876,00		0,71	1.777,60	12,60
		2004	17.416.934,00	3,60	187.829,00	58,00	1,08	1.822,80	19,70
		2006	22.001.788,00	26,30	314.850,00	67,60	1,43	2.236,90	32,00
		2008	14.491.960,00	-34,10	275.936,00	-12,40	1,90	1.473,40	28,10
		2010	17.310.467,00	19,40	289.818,00	5,00	1,67	1.722,40	28,80
		2012	10.615.757,92	-38,70	258.047,00	-11,00	2,43	1.049,60	25,50
		2014	11.315.434,08	6,60	176.399,00	-31,60	1,56	1.100,70	17,20
		2016	11.032.698,13	-2,50	214.502,00	21,60	1,94	1.069,00	20,80
		2018	11.210.811,09	1,60	279.326,00	30,20	2,49	1.076,00	26,80
		2020	15.196.615,85	35,60	223.813,74	-19,90	1,47	1.462,20	21,50
		2022	14.747.821,83	-2,95	337.298,76	50,71	2,29	1.422,03	32,52
1036	Laudioko Udala	2002	22.070.940,00		301.273,00		1,37	1.165,90	15,90
		2004	19.807.460,00	-10,30	382.927,00	27,10	1,93	1.049,60	20,30
		2006	26.261.339,00	32,60	392.763,00	2,60	1,50	1.428,10	21,40
		2008	29.918.386,00	13,90	337.763,00	-14,00	1,13	1.627,00	18,40
		2010	29.370.492,00	-1,80	433.500,00	28,30	1,48	1.594,50	23,50
		2012	22.643.135,20	-22,90	450.838,00	4,00	1,99	1.224,10	24,40
		2014	22.911.887,79	1,20	367.631,00	-18,50	1,60	1.236,30	19,80
		2016	24.896.351,31	8,70	680.731,00	85,20	2,73	1.353,10	37,00
		2018	22.892.158,54	-8,10	623.668,00	-8,40	2,72	1.247,90	34,00
		2020	25.053.937,33	9,40	568.131,79	-8,90	2,27	1.383,51	31,40
		2022	23.520.206,08	-6,12	633.087,34	11,43	2,69	1.304,79	35,12
1051	Aguraingo Udala	2014	6.637.035,06		120.759,00		1,82	1.311,70	23,90
		2016	5.568.749,86	-16,10	70.808,00	-41,40	1,27	1.061,50	13,50
		2018	7.583.889,75	36,20	92.790,00	31,00	1,22	1.432,00	17,50
		2020	6.113.693,34	-19,40	79.616,43	-14,20	1,30	1.172,55	15,30
				2022	8.549.588,41	39,84	84.051,89	5,57	0,98
1059	Vitoria-Gasteizko Udala	2002	244.264.236,00		1.109.306,00		0,45	1.126,40	5,10
		2004	250.451.259,00	2,50	1.882.753,00	69,70	0,75	1.121,80	8,40
		2006	319.668.271,00	27,60	2.602.849,00	38,20	0,81	1.391,90	11,30
		2008	405.128.870,00	26,70	2.946.925,00	13,20	0,73	1.764,00	12,80
		2010	438.193.164,00	8,20	3.454.521,00	17,20	0,79	1.839,20	14,50
		2012	309.218.749,50	-29,40	3.075.233,00	-11,00	0,99	1.276,60	12,70
		2014	346.186.396,51	12,00	3.971.244,00	29,10	1,15	1.449,30	16,60
		2016	346.315.112,02	0,00	4.534.431,00	14,20	1,31	1.429,60	18,70
		2018	347.717.878,67	,40	4.893.342,00	7,90	1,41	1.412,60	19,90
		2020	364.068.220,83	4,70	3.518.444,37	-28,10	0,97	1.469,01	14,20
		2022	398.881.557,69	9,56	4.503.617,62	28,00	1,13	1.607,71	18,15
48001	Abadiñoko Udala	2002	6.944.402,00		86.114,00		1,24	1.014,80	12,60
		2004	5.914.398,00	-14,80	75.968,00	-11,80	1,28	845,40	10,90
		2006	10.882.657,00	84,00	27.731,00	-63,50	0,25	1.523,30	3,90
		2008	8.971.230,00	-17,60	177.507,00	540,10	1,98	1.255,80	24,80
		2010	13.457.282,00	50,00	320.917,00	80,80	2,38	1.840,90	43,90
		2012	10.236.900,97	-23,90	263.487,00	-17,90	2,57	1.386,20	35,70
		2014	9.266.622,71	-9,50	259.248,00	-1,60	2,80	1.230,10	34,40
		2016	8.604.469,00	-7,10	251.094,00	-3,10	2,92	1.129,20	33,00
		2018	9.886.135,73	14,90	275.892,00	9,90	2,79	1.284,70	35,90
		2020	9.342.804,03	-5,50	142.624,19	-48,30	1,53	1.225,45	18,70
		2022	14.550.132,87	55,74	222.363,01	55,91	1,53	1.884,24	28,80

Erakunde Kodea	Erakundea	Urtea	Erakundearen aurrekontua		Euskara aurrekontua		Euskara aurrekontuaren portzentaje erlatiboa (%)	Erakundearen aurrekontua biztanleko (€)	Euskara aurrekontua biztanleko (€)
			€	Bilakaera %	€	Bilakaera %			
48002	Abanto-Zierbenako Udala	2002	10.998.521,00		37.288,00		0,34	1.217,20	4,10
		2004	13.062.116,00	18,80	60.502,00	62,30	0,46	1.421,30	6,60
		2006	13.860.630,00	6,10	64.750,00	7,00	0,47	1.451,70	6,80
		2008	16.354.186,00	18,00	192.354,00	197,10	1,18	1.712,80	20,10
		2010	12.379.565,00	-24,30	181.032,00	-5,90	1,46	1.273,10	18,60
		2012	11.928.516,05	-3,60	288.369,00	59,30	2,42	1.228,70	29,70
		2014	10.955.918,93	-8,20	151.248,00	-47,60	1,38	1.130,50	15,60
		2016	11.029.105,79	,70	151.037,00	-,10	1,37	1.150,30	15,80
		2018	12.759.055,25	15,70	171.022,00	13,20	1,34	1.346,50	18,00
		2020	10.727.406,20	-15,90	126.470,88	-26,00	1,18	1.140,61	13,40
	2022	15.524.742,60	44,72	197.550,00	56,20	1,27	1.663,78	21,17	
48003	Amorebieta-Etxanoko Udala	2002	17.691.672,00		306.122,00		1,73	1.093,30	18,90
		2004	16.597.932,00	-6,20	323.014,00	5,50	1,95	1.012,20	19,70
		2006	31.210.439,00	88,00	552.996,00	71,20	1,77	1.814,90	32,20
		2008	29.913.207,00	-4,20	481.467,00	-12,90	1,61	1.739,40	28,00
		2010	36.452.165,00	21,90	459.311,00	-4,60	1,26	2.028,60	25,60
		2012	23.731.558,92	-34,90	455.834,00	-,80	1,92	1.281,90	24,60
		2014	25.698.917,37	8,30	560.081,00	22,90	2,18	1.410,80	30,70
		2016	19.971.716,45	-22,30	538.616,00	-3,80	2,70	1.067,40	28,80
		2018	25.368.191,10	27,00	888.200,00	64,90	3,50	1.326,90	46,50
		2020	27.192.779,05	7,20	829.494,01	-6,60	3,05	1.414,45	43,10
	2022	30.792.539,84	13,24	870.382,93	4,93	2,83	1.601,94	45,28	
48011	Arrigorriagako Udala	2002	9.085.332,00		385.500,00		4,24	815,60	34,60
		2004	9.368.448,00	3,10	380.299,00	-1,30	4,06	813,60	33,00
		2006	11.549.047,00	23,30	459.315,00	20,80	3,98	946,20	37,60
		2008	21.297.912,00	84,40	449.230,00	-2,20	2,11	1.744,90	36,80
		2010	17.196.115,00	-19,30	404.128,00	-10,00	2,35	1.391,50	32,70
		2012	11.311.569,58	-34,20	471.675,00	16,70	4,17	903,10	37,70
		2014	12.773.678,51	12,90	401.690,00	-14,80	3,14	1.052,90	33,10
		2016	12.662.387,77	-,90	447.012,00	11,30	3,53	1.055,30	37,30
		2018	14.268.883,19	12,70	437.191,00	-2,20	3,06	1.200,90	36,80
		2020	12.823.691,82	-10,10	412.389,53	-5,70	3,22	1.077,98	34,70
	2022	13.735.466,18	7,11	495.872,00	20,24	3,61	1.173,17	42,35	
48013	Barakaldoko Udala	2002	69.840.972,00		185.359,00		0,27	739,20	2,00
		2004	104.123.250,00	49,10	196.264,00	5,90	0,19	1.099,20	2,10
		2006	100.636.998,00	-3,30	196.889,00	0,30	0,20	1.043,50	2,00
		2008	116.331.261,00	15,60	593.665,00	201,50	0,51	1.206,20	6,20
		2010	109.010.576,00	-6,30	577.714,00	-2,70	0,53	1.097,60	5,80
		2012	103.939.090,57	-4,70	964.417,00	66,90	0,93	1.035,60	9,60
		2014	107.240.910,46	3,20	995.017,00	3,20	0,93	1.085,50	10,10
		2016	100.713.272,63	-6,10	1.686.159,00	69,50	1,67	1.025,60	17,20
		2018	107.501.949,23	6,70	1.785.694,00	5,90	1,66	1.091,40	18,10
		2020	117.581.613,04	9,40	1.852.118,16	3,70	1,58	1.190,95	18,80
	2022	136.727.374,03	16,28	2.229.718,00	20,39	1,63	1.390,86	22,68	
48015	Basauriko Udala	2002	34.332.590,00		596.681,00		1,74	761,50	13,20
		2004	42.965.087,00	25,10	802.482,00	34,50	1,87	956,20	17,90
		2006	45.836.322,00	6,70	1.229.602,00	53,20	2,68	1.059,00	28,40
		2008	50.557.488,00	10,30	1.473.265,00	19,80	2,91	1.168,10	34,00
		2010	66.593.084,00	31,70	1.264.072,00	-14,20	1,90	1.568,70	29,80
		2012	55.303.463,45	-17,00	1.334.658,00	5,60	2,41	1.317,70	31,80
		2014	47.376.624,04	-14,30	1.513.356,00	13,40	3,19	1.141,60	36,50
		2016	45.979.918,16	-2,90	1.705.901,00	12,70	3,71	1.124,30	41,70
		2018	54.357.543,41	18,20	1.421.519,00	-16,70	2,62	1.335,20	34,90
		2020	49.579.366,71	-8,80	1.306.298,90	-8,10	2,63	1.222,79	32,20
	2022	55.276.943,99	11,49	1.491.936,09	14,21	2,70	1.371,57	37,02	

Erakunde Kodea	Erakunde	Urtea	Erakundearen aurrekontua		Euskara aurrekontua		Euskara aurrekontuaren portzentaje erlatiboa (%)	Erakundearen aurrekontua biztanleko (€)	Euskara aurrekontua biztanleko (€)
			€	Bilakaera %	€	Bilakaera %			
48016	Berangoko Udala	2002	3.535.530,00		191.953,00		5,43	665,70	36,10
		2004	5.789.069,00	63,70	247.264,00	28,80	4,27	1.031,60	44,10
		2006	7.078.043,00	22,30	276.451,00	11,80	3,91	1.129,60	44,10
		2008	7.645.064,00	8,00	357.917,00	29,50	4,68	1.220,10	57,10
		2010	9.331.199,00	22,10	333.730,00	-6,80	3,58	1.382,80	49,50
		2012	8.191.411,23	-12,20	340.914,00	2,20	4,16	1.190,10	49,50
		2014	6.997.313,63	-14,60	363.325,00	6,60	5,19	992,70	51,50
		2016	5.627.287,30	-19,60	397.042,00	9,30	7,06	790,30	55,80
		2018	8.851.507,17	57,30	404.496,00	1,90	4,57	1.224,30	55,90
		2020	10.120.940,09	14,30	211.629,17	-47,70	2,09	1.363,27	28,50
		2022	8.585.780,00	-15,17	374.217,97	76,83	4,36	1.142,03	49,78
48017	Bermeoko Udala	2002	13.801.960,00		170.078,00		1,23	814,90	10,00
		2004	16.872.533,00	22,20	278.655,00	63,80	1,65	998,00	16,50
		2006	16.276.537,00	-3,50	431.137,00	54,70	2,65	969,50	25,70
		2008	23.545.861,00	44,70	460.677,00	6,90	1,96	1.402,50	27,40
		2010	21.582.229,00	-8,30	534.933,00	16,10	2,48	1.267,60	31,40
		2012	17.293.127,06	-19,90	476.876,00	-10,90	2,76	1.008,70	27,80
		2014	17.207.763,32	-5,00	419.476,00	-12,00	2,44	1.020,60	24,90
		2016	18.339.373,42	6,60	378.595,00	-9,70	2,06	1.093,80	22,60
		2018	18.454.800,08	,60	441.551,00	16,60	2,39	1.093,30	26,20
		2020	19.224.504,57	4,20	446.575,11	1,10	2,32	1.141,67	26,50
		2022	26.498.450,00	37,84	420.442,00	-5,85	1,59	1.578,98	25,05
48020	Bilboko Udala	2002	303.872.648,00		1.184.198,00		0,39	868,30	3,40
		2004	393.709.250,00	29,60	1.440.765,00	21,70	0,37	1.113,50	4,10
		2006	474.718.244,00	20,60	2.228.239,00	54,70	0,47	1.351,80	6,30
		2008	543.300.000,00	14,40	2.852.119,00	28,00	0,52	1.547,10	8,10
		2010	589.418.636,00	8,50	2.779.990,00	-2,50	0,47	1.668,90	7,90
		2012	472.200.000,00	-19,90	1.928.969,00	-30,60	0,41	1.342,90	5,50
		2014	526.991.890,00	11,60	1.733.113,00	-10,20	0,33	1.530,00	5,00
		2016	461.091.119,29	-12,50	1.748.189,00	0,90	0,38	1.346,70	5,10
		2018	515.701.606,50	11,80	2.345.646,00	34,20	0,45	1.501,60	6,80
		2020	537.695.276,35	4,30	2.121.868,83	-9,50	0,39	1.569,17	6,20
		2022	618.818.083,03	15,09	2.660.858,79	25,40	0,43	1.817,62	7,82
48027	Durangoko Udala	2002	17.924.442,00		270.295,00		1,51	716,90	10,80
		2004	18.485.937,00	3,10	292.199,00	8,10	1,58	718,30	11,40
		2006	28.719.389,00	55,40	552.867,00	89,20	1,93	1.028,40	19,80
		2008	38.032.456,00	32,40	662.570,00	19,80	1,74	1.362,00	23,70
		2010	33.529.587,00	-11,80	736.989,00	11,20	2,20	1.186,40	26,10
		2012	26.993.832,05	-19,50	749.361,00	1,70	2,78	943,30	26,20
		2014	28.376.716,68	5,10	810.822,00	8,20	2,86	978,10	27,90
		2016	30.428.868,57	7,20	942.855,00	16,30	3,10	1.046,10	32,40
		2018	31.172.325,85	2,40	1.026.094,00	8,80	3,29	1.059,00	34,90
		2020	31.855.597,32	2,20	977.732,23	-4,70	3,07	1.062,85	32,60
		2022	37.863.696,10	18,86	1.024.946,29	4,83	2,71	1.277,28	34,58
48029	Etxebarriko Udala	2002	10.111.556,00		145.854,00		1,44	1.435,70	20,70
		2004	11.892.405,00	17,60	258.480,00	77,20	2,17	1.609,30	35,00
		2006	9.007.593,00	-24,30	346.801,00	34,20	3,85	1.110,80	42,80
		2008	12.645.634,00	40,40	271.932,00	-21,60	2,15	1.559,50	33,50
		2010	14.603.174,00	15,50	379.317,00	39,50	2,60	1.510,60	39,20
		2012	10.051.787,15	-31,20	509.466,00	34,30	5,07	972,40	49,30
		2014	10.554.824,85	5,00	611.222,00	20,00	5,79	986,70	57,10
		2016	10.949.299,55	3,70	672.000,00	9,90	6,14	994,30	61,00
		2018	11.426.570,33	4,40	718.476,00	6,90	6,29	1.007,80	63,40
		2020	11.956.736,50	4,60	807.501,47	12,40	6,75	1.036,56	70,00
		2022	15.582.935,00	30,33	926.798,00	14,77	5,95	1.335,53	79,43

Erakunde Kodea	Erakundea	Urtea	Erakundearen aurrekontua		Euskara aurrekontua		Euskara aurrekontuaren portzentaje erlatiboa (%)	Erakundearen aurrekontua biztanleko (€)	Euskara aurrekontua biztanleko (€)
			€	Bilakaera %	€	Bilakaera %			
48032	Elorrioko Udala	2002	7.049.191,00		270.365,00		3,84	984,90	37,80
		2004	8.858.686,00	25,70	379.140,00	40,20	4,28	1.235,50	52,90
		2006	9.706.552,00	9,60	369.023,00	-2,70	3,80	1.372,00	52,20
		2008	10.469.129,00	7,90	206.804,00	-44,00	1,98	1.479,70	29,20
		2010	9.361.357,00	-10,60	393.019,00	90,00	4,20	1.290,90	54,20
		2012	9.488.542,11	1,40	353.383,00	-10,10	3,72	1.302,80	48,50
		2014	11.712.131,77	23,40	314.910,00	-10,90	2,69	1.614,40	43,40
		2016	7.474.059,33	-36,20	266.254,00	-15,50	3,56	1.013,20	36,10
		2018	8.269.987,57	10,60	289.509,00	8,70	3,50	1.111,40	38,90
		2020	7.987.832,95	-3,40	181.978,97	-37,10	2,28	1.069,04	24,40
	2022	9.072.829,41	13,58	212.576,72	16,81	2,34	1.227,22	28,75	
48034	Ermuko Udala	2002	27.492.236,00		310.379,00		1,13	1.636,90	18,50
		2004	19.306.860,00	-29,80	312.174,00	0,60	1,62	1.153,70	18,70
		2006	20.395.147,00	5,60	281.516,00	-9,80	1,38	1.261,00	17,40
		2008	21.712.454,00	6,50	353.320,00	25,50	1,63	1.342,40	21,80
		2010	25.189.595,00	16,00	289.430,00	-18,10	1,15	1.555,30	17,90
		2012	21.786.580,91	-13,50	339.552,00	17,30	1,56	1.338,40	20,90
		2014	21.081.333,60	-3,20	299.344,00	-11,80	1,42	1.311,40	18,60
		2016	19.302.323,77	-8,40	306.032,00	2,20	1,59	1.200,80	19,00
		2018	20.274.613,82	5,00	343.546,00	12,30	1,69	1.264,10	21,40
		2020	20.412.248,82	,70	225.048,52	-34,50	1,10	1.291,42	14,20
	2022	23.696.184,55	16,09	308.290,91	36,99	1,30	1.516,36	19,73	
48036	Galdakaoko Udala	2002	23.957.399,00		408.801,00		1,71	810,90	13,80
		2004	29.967.381,00	25,10	543.418,00	32,90	1,81	1.006,80	18,30
		2006	39.595.944,00	32,10	890.799,00	63,90	2,25	1.361,90	30,60
		2008	59.541.819,00	50,40	989.390,00	11,10	1,66	2.048,00	34,00
		2010	44.980.820,00	-24,50	897.051,00	-9,30	1,99	1.537,60	30,70
		2012	29.530.021,58	-34,40	891.308,00	-0,60	3,02	1.013,70	30,60
		2014	31.621.346,93	7,10	845.234,00	-5,20	2,67	1.079,60	28,90
		2016	29.995.340,14	-5,10	981.224,00	16,10	3,27	1.023,00	33,50
		2018	32.407.638,95	8,00	1.027.076,00	4,70	3,17	1.102,70	34,90
		2020	31.734.059,33	-2,10	1.145.365,30	11,50	3,61	1.078,33	38,90
	2022	42.585.451,16	34,19	1.296.151,30	13,16	3,04	1.452,19	44,20	
48043	Gorlizko Udala	2008	10.867.699,00	0,00	161.029,00	0,00	1,48	2.118,50	31,40
		2010	10.730.410,00	-1,30	157.547,00	-2,20	1,47	1.949,90	28,60
		2012	7.204.240,07	-32,90	131.221,00	-16,70	1,82	1.302,30	23,70
		2014	6.310.303,71	-12,40	150.385,00	14,60	2,38	1.114,10	26,60
		2016	6.085.959,00	-3,60	120.949,00	-19,60	1,99	1.066,80	21,20
		2018	6.637.148,37	9,10	110.709,00	-8,50	1,67	1.139,40	19,00
		2020	7.738.915,86	16,60	54.757,11	-50,50	0,71	1.277,26	9,00
			2022	8.012.713,69	3,54	144.899,81	164,62	1,81	1.320,49
48044	Getxoko Udala	2002	57.201.448,00		1.173.123,00		2,05	695,20	14,30
		2004	84.136.209,00	47,10	1.695.061,00	44,50	2,01	1.006,10	20,30
		2006	82.731.927,00	-1,70	1.597.181,00	-5,80	1,93	1.018,20	19,70
		2008	94.788.392,00	14,60	1.462.833,00	-8,40	1,54	1.166,60	18,00
		2010	112.340.412,00	18,50	1.460.490,00	-0,20	1,30	1.399,40	18,20
		2012	82.679.564,46	-26,40	1.611.327,00	10,30	1,95	1.033,20	20,10
		2014	84.803.682,72	2,60	1.216.349,00	-24,50	1,43	1.077,60	15,50
		2016	85.428.390,31	0,70	1.553.806,00	27,70	1,82	1.098,20	20,00
		2018	99.354.240,83	16,30	1.772.336,00	14,10	1,78	1.288,80	23,00
		2020	94.717.442,12	-4,70	1.261.103,45	-28,80	1,33	1.241,07	16,50
